

ttipi ttapa

2002ko urriaren 31 • XXII. urtea



**Dabid Anaut eta
Euskara Kontseilua** 03

Udazkeneko lehen feriak ailegatu dira. Urriaren 25ean, ortzilarean, Elizondon bilduko dira Baztan eta inguruetakoko baserritar eta bisitariak, ikustera eta eroatera.



**Mitxel Aginaga
berriz txapeldun** 06

iaz lesio bategatik ez zuen parte hartu, baina aurten Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa bosgarren aldiz irabazi du NARBARTeko kirolariak Gartzainen.

04 Lekarozko Kolegioaren azken hatsa



ACERALIA
Transformados

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

ACERALIA TRANSFORMADOS ATE IREKIEN EGUNA ISO 14001

2002ko azaroak 6

10.00 Ongietorria eta egunaren irekiera Etxalarko Bentan

Ignacio Ágreda Peiró Jauna (Aceralia Transformadoseko Laminazio U.ko Komunikazio eta Kanpo Harremanetako Zuzendaria)

10.10 Javier Marcotegui Ros Jauna

Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduko kontseilaria Medio Ambiente Industrial S.A.ko Nafarroako Lehendakaria

10.20 Ramón Bultó Llevat Jauna

Kalitaterako Nafarroako Fundazioako Lehendakaria

10.30 José Ignacio Elorrieta Pérez de Diego Jauna

Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduko Ingurumen Zuz. Nagusia

10.40 Ingurumenaren kudeaketa Aceralia Transformadosen

Jesús María Imaz Gurruchaga Jauna
Aceralia Transformadoseko Laminazio Unitateko Gerentea

11.10 Bisita gidatua lantegian

13.00 Aperitiboa eta amaiera

Laguntzaileak



Sarrera doan aitzinetik
baieztatuz gero

Nafarroako Kalitaterako Fundazioa Faxa: 948 196 045 / e-Posta: jbdados@qnavarra.com
NAMAINSA Faxa: 948 198 125 / e-Posta: namainsa@namainsa.es

DATUAK...

- Dabid Anaut Leitzaldeko Euskara Zerbitzuko teknikaria da azken zazpi urteotan. Bortzirietan ere ia hiru urtez izan zen euskara teknikari.
- Berriki izendatu den Nafarroako Euskara Kontseiluko kide da, Oinarriak erakundea ordezkatzuz.
- Kontseiluaren gaur eguneko osaketa fartsa bat dela iruditzen zaio, Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika zuritzeko erakunde bat besterik ez.



Dabid ANAUT *Nafarroako Euskara Kontseiluko kidea*

MIKEL ILLARREGI

«Euskararen inguruko erakundeak euskararen kontra erabiltzen dituzte»

Aitor AROTZENA

Zein da Nafarroako Euskara Kontseiluaren betebeharra?

Euskara Kontseiluaren ustezko funtzioa hizkuntza normalizazioari dagokionez, hau da, euskararen inguruko gaietan Nafarroako Gobernuaren aholkatzea da, hori da egin beharko lukeena. Baina kontseilua orain osatzerakoan Nafarroako Gobernuaren egiazko asmoa tramite legal bat bete ahal izatea besterik ez da: lehendik baliogabetua dagoen dekretuaren berdin-berdina egin dute orain. Hori legalizatu nahi dute eta nahitaez Kontseiluaren txostena behar dute, aldekoa edo kontrakoa izatea berdin dio, tramitea bete behar dute besterik gabe. Gero dekretua onar dezakete. Euskararen erabilera administrazioan arautzeko 2000. urteko dekretua atzera bota zuten epaileek forma akats bategatik. Orain akats hori zuzendu dute, baina testua berbera da. Aldaketa bakarra du eta hori okerrerrako, gainera.

Kontseilua apaingarri hutsa besterik ez da orduan?

Bai. Lehengo Kontseiluko kideek due-

«Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika zalantzan jarriko ez duen Kontseilua osatu dute, izendapen oso eztabaidagarriekin»

la lau urte dimititu zuten. Geroztik bildu gabe egon da eta orain, kasualitatez, dekretua aurrera ateratzeko txostena behar zelako bildu da eta bidebatez beraien hizkuntz politika zuritzeko. Garbi ikusten da zertarako nahi duten. Kontseilua beraien neurrira osatu dute, Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika zalantzan jarriko ez duen Kontseilua da eta izendapenak ere oso eztabaidagarriak dira. Gehiengo ongi lotua daukate.

Eta gutxiengoa duzuen ordezkari horiek, zerbait pentsatu duzue?

Lehendabiziko bileran jarrera bateratua eraman genuen. Proposamen batekin joan ginen, ez bakarrik ezetz esatera besterik gabe. Nafarroan hizkuntz politika berri bat denon artean egiteko planteamenduarekin joan ginen, hizkuntz eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin, 50.000 sinadu-

ra bildu zituen Oinarriak-en txostenearekin... Kontseiluari buruzko balorazio berdintsua dugu, fartsa bat dela eta euskarari ez zaiola deus onik etorriko hortik, garbi dago. Azken finean, euskararentzat dagoen dirua eta euskararen inguruko erakundeak euskararen kontra erabiltzen ari da Nafarroako Gobernu.

Zer jende biltzen da Kontseiluan?

Hogeiki kide ditu: zortzi gizarte eragileek proposatuak (Kontseilua, Ikastolen Elkarte, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Prentsa Elkarte, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta bi unibertsitateetako ordezkari bana), bortz beraien karguengatik daudenak (Sanz presidentea, Laguna kontseilaria, Arellano, Pegenante eta euskaltzain burua) eta ustezko zazpi aditu. Aditu hauen izendapenak errekurrituak daude, ustez euskararen inguruko adituenak direnak eta euskalgintzarekin sekulan inolako zerikusirik izan ez dutenak, batzuk euskaraz ez dakitenak. Oso izendapen politikoak eta interesatuak izan dira, nabarmen gainera, disimulatzeko intentziorik gabe.



Lekarozko Kolegioa salgai dago eta gelditzen diren lau erlijiosoek azaroaren hondar aldera aldeginen dute Kaputxinoen bertze komentuetara.

Horrela, bada, 114 urteko historia duen Kolegioak bere azkena du egunotan. Urbiolako Biktorki (Juan Bautista Lukin) da behin-behineko Kolegioko buru egiten duena, eta berekin batera daude Altsasuko Justino, Zabaltzetako Pablo eta Artaxoako Fernando. Hauexek dira Lekarozko azkenak. Dena den, ikus dezagun laburki bada ere, zer izan den Lekarozko Kolegioa.

Ezkerrean Juan Bautista Lukin (Aita Victor Urbiolako) eta Ramon Apezetxea, Almandozko apeza.

ABENDURAKO ALDEGINEN DUTE AZKENEKO KAPUTXINOEN

Lekarozko Kolegioaren azken hatsa

Joxemanuel IRIGOIEN

Duela 114 urte abiatu zen Lekarozko Kolegioaren Historia (1888-2002). Garai hartako kronikak kontatzen dutenez, 1888ko apirilaren 22a igandea zen. Kaputxinoek Lekarozko komentuko lehen harria jartzeko zeremonia ofiziala zuten arratsaldeko 4etan. Egun euritsu suertatu zen, eta eliz agintari gorenekin batera, Aita Llevaneras komentua sortzailea, Lekarozko Joakin Plaza sustatzaile nagusia eta Baztango udal agintari nagusiak zeuden. Kontu gehiago ere kontatzen dute aipatu kronikak. Antza denez, lehenik lurra erosteko eta gero eraikuntza gastuak ordaintzeko, di-

ru-eskeak egin ziren Baztan osoan, eta handik eta hemendik eliza, komentua eta kolegioa altxatzeko behar zena bildu zuten. Lan horretan, aparteko abildadea erakutsi zuen Zugarramurdiko Fray Fernandok. Dirua ez ezik, hondasunak eta herentziak bildu zituen Lekarozko Kolegioaren alde. Lehenbiziko 47 urtetan Kaputxinoen apaiztegi izan zen, batez ere 1891tik 1938a bitarte. Lekarozko apaiztegi serafikoan prestatzen ziren gero Filipinetara eta Espainiako bertze kolonietara joaten ziren kaputxinoak.

Joan den mendearen hasieran (1909-1910) Bigarren Hezkuntzako institutu bihurtu zen. Geroztik, ospe

handiko eskola izana da Lekarozko Kolegioa, eta ez bakarrik Baztanen eta Euskal Herri osoan, baita Espainia eta itxasoaz gaindiko Estatueta-ko agintari klasearentzat ere. Ageri denez, diziplina gogorra zuten garai hartan Lekarozko Kolegioan. Ikasleek hilabeteak eta hilabeteak egiten zituzten ikastetxetik ateri gabe, ikasi eta ikasi. Horren ondorio izan zen, seguraski, gero azterketa garaian lortzen zituzten emaitza onak. Lehenbiziko urteetan ez zuten kanpoko ikaslerik onartzen. Bakar bakarrik apez kaputxino izan zirenak ikasten zuten Lekarozen. Denborarekin, ordea, kanpoko ikasleak ere onartu zituzten, batez ere, Espainiako Gerra Zibila bu-



Lerro hauen gainean, instalazioen ikuspegi orokorra. Eskuineko argazkietan gainekoa, Ikasle Ohien Txokoa inaurguratu zutenekoa da (1985). Behegian, Aita Llevaneras Kolegioaren sortzailea, eta ondokoan Jesus Maria Leizaola, Ikasle Ohien Elkartearen lehen presidentea izan zena.

katu eta segidan. Gerra garaian, ospitale ere bihurtu zuten pare bat urtez, General Mola izeneko ospitala. Hala ere, gerrako ospitale izateaz gain, irakas-kuntzako zereginak ez ziren batera gelditu eta zientzako soldadu eta gerrako zaurituekin batera, bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleak ere bildu ziren Kolegioko instalazio desberdinetan.

SUTEAREN KALTEAK

1962an sute batek Kolegioaren zati handi bat erre zuen, mutilen logelak ziren alderdia batez ere. Gertara hori zela eta, eraikin zahararen ondoan bertze hiru eraikin berri altxatu zituzten. Sute horrek arrisku bizian jarri zuen balio handikoa zen Liburutegia. Presaka eta lasterka 40.000 liburu inguru ateri behar izan zituzten liburutegitik. Zorionez ez zen liburu bat bera ere erre. Izan ere, liburutegian bazeuden aski pieza bitxiak: arabieraz idatzitako Korana, Egiptoko hieroglifikoak eta horiekin batera euskal literaturako pieza interesgarriak eta bilduma aski zabala.

Lekarozko ikasleak mutilak ziren beti. 1980ko hamarkadan onartu zituzten lehen aldiz neskek. Itxura denez, zalantza handiak izan zituzten afera honetan. Azkenean, ordea, «ez zela deus berezirik gertatu» konstatu digu Aita Fernandok

IZEN HANDIKO IKASLEAK

Idekia egon den urte horiek guztietan, izen handiko jende ugari pasatu da Lekarozko Kolegioko ikasgelaletatik. Urkijo bankari ezaguna, Oteiza eskultore eta artista mitikoa, Nicanor Zabaleta musikari eta arpajole handia, Leizaola politikari abertzalea, eta bertze hainbat eta hainbat izen handiko pertsonai zerrenda luzea egin arte. Juan Bautista Lukinek kontatu digunez, zazpi mila ikasle baino gehiago pasatu omen dira Lekarozko Kolegiotik.

LEHENBIZIKO SALMENTA GOBERNUARI

1980ko hamarkadaren azken urteetan Kaputxinoek Nafarroako Gobernuari saldu zizkieten eraikin berriak eta bukaera eman zioten urte luzetan emandako irakaskuntza lanari.

Aita Lukinek kontatu digunez, gaur egun arras zaila egiten zaie 4 kaputxinoei egoitza guztia mantentzea.

Etorkizunean Komentuarekin zer gertatuko den ikusteko dago oraindik. Aukera desberdinak dituzte mahai gainean kaputxinoek. Etxebizitzak, hotela... aukera desberdinak aztertzen ari dira. Lekarozko Ikasle Izandakoen Elkarteak ere interes berezia agertu du guzti honetan. Baina galderaren horien guztien erantzuna, erran bezala, erabatu argitu gabe dago oraindik.



ETORKIZUNEAN ZER?

Etxe-urbanizazioaren bat egitea proposatu zuen Ikasle Ohien Elkarteak

Urriaren 13an Ikasle Ohien Elkarteak bilera egin zuen Lekarozko Kolegioan ikusteko zein alternatiba izaten ahal den egokiena. Eliza eta eraikinak zutik mantentzea nahi lukete. Hori horrela izateko, proposamen artean legoke kolegio zaharra eta bere inguruak norbait saltzea urbanizazio bat egiteko. Horrela balitz, eliza zutik atxikitzea ongi etorriko zen, meza eta aitortza ugari egiten baita gaur egun Lekarozen. Guztia ar-

gitu bitartean eliza itxita egon den ez dakite oraindik, ez baitago Iruñetik urrungi igandetan meza ematera handik etortzeko ere.

Dena den, salgai dauden eraikin eta lur eremuetatik aparte geldituko da Ikasle Ohien Txokoa. Itxuraz, Elkartearen ardurapean geldituko da, nahiz eta jabetza Kaputxinoena izan, Aita Larrunbek aditzera eman duenez. Elizan dauden balio handiko artelanak, ordea, Iruñera eramanez dituzte

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

• TTIPI TXARTELA •



**Jakinazazu
TTIPI TXARTELA
ttipi-ttapa
fundazioa
finantziatzeko
erreminta ere badela.
Nafarroan
euskararendako
dirulaguntzak
gero eta murriztagoak
direnean,
jendearen aportazioa
inoiz baino
garrantzitsuagoa baita**

TTIPI TXARTELArekin

ttipi-ttapa aldizkaria
debalde hartuko duzu
eta txartela duten guztien artean
oparien zozketak
eginen dira hilabetero

ZOZKETAK

KONTZERTUETARAKO SARRERAK

OSKORRI

azaroaren 1ean Lesakako Zambra aretoan.
Deitu 948 631 188ra urriaren 31 baino lehen

JUANES

azaroaren 8an Lesakako Zambra aretoan.
Deitu 948 631 188ra azaroaren 7a baino lehen

ZAMBRA DANCE CLUB INAUGURAZIOA heiko laux + alexander kowalski...

azaroaren 9an Lesakako Zambra aretoan.
Deitu 948 631 188ra azaroaren 7a baino lehen

EXTREMODOURO

Zuzeneko diska berriaren grabaketa Zambran
azaroaren 16an Lesakako Zambra aretoan.
Deitu 948 631 188ra azaroaren 14a baino lehen

DESKONTUAK

AUTO ETA BIZIKLETA TALLERRAK

KATEA BIKE Bera
DATUGELAY Elizondo
SANSINENA Elizondo
ZALAIN MOTOR. . . Bera

AUTO-ESKOLAK

SEMPER Bera

ARGAZKI DENDAK

AYLA Bera
GOIKO Bera
MENA Doneztebe/Elizondo
ZALDUA Doneztebe/Elizondo

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera
J.J. PICABEA . . . Doneztebe
TXIMELETA Doneztebe
KAMAMILA Doneztebe
IPINGI Elizondo
KATTALINGORRI . . Elizondo
FANTXIKE Elizondo

BITXIDENDAK

ETXARTE BITXIDENDA Lesaka

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS Lesaka
ALTZURI Lesaka

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . Elizondo
ZELA KIROLAK . . Bera
AGARA KIROLAK . Bera

LENTZERIAK

MARIGRUZ Doneztebe
MAITE Elizondo
DEÑE Lesaka

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS Elizondo
LEGARRA Lesaka
MAIMUR Leitza

OPTIKAK

OSTARGI Bera
ARGIBEL Elizondo

ESKULANEKO MATERIALAK

EL DESVAN Bera

PENTSUAK

MENDAUR Doneztebe

TINDATEGIAK

JAIONE Doneztebe

ZAPATADENDAK

KALOTXA Bera
GOÑI Elizondo
NEREA Doneztebe
OSTIZ Doneztebe
MOLINO Irun

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 2002-00-17

«Fitxatzerakoan La Pecol taldeak eman zidan itxura ona baieztatu egin da denboraldian. Talde serioa da. Hagitz ongi portatu dira eta ordainketak egunera eramaten dituzte».

«Denboraldi hasiera ona egin nuen, nere bigarren lasterketa irabaziz eta aitzineko postuetan ibiliz. baina apirilean, urtero bezala, alergiak izan ditut. Denera 40 egun bakarrik aritu naiz konpetizioan, baina Portugalen normala da, egutegi laburra delako».

Jon BRU
Berako txirindularia
D.Noticias 2002-10-17

«Aspe eta Asegarge bezalako enpresa handietako pilotariak dute ardurarik handiena eta beraiek eman behar dituzte urratsak. Beti bertzezi begirutzen diegu, baina pilotariak zer erran handia du. Orain inoiz baino elkartasun gehiago dugu pilotarion artean, baina ikusi egin beharko da nahikoa ote den».

«70 bazkide ditu Eskutik sindikatuak eta bileratan hagitz kontzientziatua ikusi dut jendea».

Inaxio ERRANDONEA
Eskutik-en ordezkaria
D.Vasco 2002-10-18

• 11 GALDERA LABUR •



Kepa LEITZA Aurtizko arraultze saltzaile eta pilotaria

Iñautik edo bestak?

Iñautik.

Bestak, antolatzen lan egiteko edo juerga egiteko?

Juega egitea, hori dudik gabe.

Besta on bat egiteko zer behar da?

Kuadrilla ona izatea eta giro ona.

Mikel Goñi edo Unai Apeztegia?

Pilotari bezala Mikel, eta lagun eta herritar bezala Unai.

Besta egiteko Bordatxo edo Aurtizko bestak?

Aurtizko bestak. Kristonak dire.

Neska izanez gero, joariak joko zenuituzke?

Ez, jotzekotan gabaz joko nuke, baina ibillidean ez.

Hamar uso edo basurde bat?

Hamar uso nahiago, uso ehiztaria naiz eta.

Pilotaria edo arraultze saltzailea?

Pilotaria.

Bizitzeko herri bat?

Aurtiz, herri polit honetan.

Kalimotxo edo kubata?

Kalimotxo... beno, edozein.

Ezkontzak aldatu zaitu?

Bai, pixko bat bai. Bai onerako eta bai txarrerako.

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

G U T N T I T L E
I CHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara
© 948 637404
© 900 704704

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

LESAKA

KULTURA

Bortzirietako Bai Euskal Herriari taldeak literatur lehiaketa deitu du

2003ko martxoaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

ttipi-ttapa

«Herriak eta hizkuntza (euskara eta Euskal Herria)» gaiaren inguruan Bortzirietako Bai Euskal Herriari taldeak literatur lehiaketa antolatu du, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak babestua.

Lanak aurkezteko epea 2003ko martxoaren 29an itxiko da eta genero guztiak onartuko dira: olerkia, bertso-paperak, ipuina eta saikera. Genero guztiak batera epaituko dira. Euskarazko lanak aurkeztu ahal izanen dira bakarrik, jatorrizkoak, argitaragabeak eta bertze literatur lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak edota literatur sormenerako laguntzaren bat jaso ez dutenak. Gisa berean, ezin izanen dira aurkeztu jatorriz bertze hizkuntza batean idatziak izan eta lehiaketarako euskaratuak izan diren lanak. Aurkezten direnek 16 urte izan beharko dituzte guttienez eta Euskal Herri



ARTXIBOKOA

Kafe-antzerki beka deialdian 900na euroko bi beka banatuko dituzte Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Bera eta Etxalarko Udalek.

osoko egileen lanak onartuko dira.

Lanak, honelako lehiaketa hauetan ohikoa den sistema erabiliz Bortzirietako Euska-

ra Mankomunitatera bidali behar dira (Herriko Plaza 7, 31790 Arantzeta).

Epaimahaia Bortzirietako Euskara Man-

komunitateak eta Bortzirietako Bai Euskal Herriari taldeak izendatuko dute. Epaia ematekoan testuaren edukia, hau da, hizkuntzek herrien identitatean duten garrantzia edo betetzen duten papera egokien azaltzen dituzten lanak, eta balio literarioa aintzat hartuko dira.

900 EUROKO LEHEN SARIA

Hiru sari izanen dira: lehendabizikoa 900 eurokoa, bigarrena 450 eurokoa eta hirugarrena, hamasei eta hogeitaz bitarteko bortziritarrentzat gordea, 150 eurokoa. Halere, gerta liteke sarietako edozein eman gabe gelditzea, aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez balute.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Bortzirietako Bai Euskal Herriari taldeak gordeko dute saritutako lanak urtebeteko epean argitaratzeko eskubidea.

Kafe-antzerki beka deialdia

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Berako Udalak eta Etxalarko Udalak kafe-antzerki bekarako deialdia egin dute. Beka honetan euskaraz sortutako proiektuak lagunduko dira, inon argitaratuak edo plazaratuak izan ez direnak eta bertze bekarik edo saririk jaso ez dutenak. Bertze lanen baten itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko. Izan ere, euskal sortzaileei bultzada ematea eta gure herrietan formato ttikiko lanak taularatzea dira beka honen xedeak. Bi beka izanen dira, biak 900 eurokoak eta bi zatitan ordainduko dira: erdia epaimahaiaren erabakia ezagutu ondotik eta bertze erdia antzezlanak lehendabizikoz taularatzean. Egileen curriculum eta proiektuaren ezagutza bilduko dituen txostena 2003ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira Bortzirietako Euskara Mankomunitatean. Beka jasotzen dutenak emanaldi bana eskainiko dute Etxalar eta Beran.

Zalain
jatetxea

Plaza Berria 13 • Tel. 948 625 472
Bera • Nafarroa

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Legia I, behea • BERA • ☎ 948 630652

Zure ingurua klase guzitanok inektuz (xomorro, zinaurre, armiama, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

☎ 948630155
BERA

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin

Terraza eta plater konbinatuak

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

BERA



Datorren igandean, azaroaren 3an, Tolosako Abesbatzen Lehiaketan parte hartu ondoren, Kultur Etxean kantatuko du Filipinako Palawan abesbatzak, 19:00etan. Berako Abesbatzak antolatu du ekitaldia, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz.

Pettik «Etxeko uzta» diska berria aurkeztu du

Urriaren 24an egin zuten prentsaurrekoa Bilbon

Amaia eta Ainhoa

Urriaren 24an Petti abeslari beratarrek bere hirugarren lana aurkeztu zuen Bilbon eskainitako prentsaurrekoan. Etxeko Uzta diskoan Pettik bere alderdi elektriko eta zuzena erakutsi nahi du. Kantu sakonak, elektrikoak, gitarreroak eta erritmikoak, batzutan Mikel Laboa gogora ekartzen dutenak ekartzen ditu oraingoan. Eszenatikietan ondutako alderdia zuen hau, baina orain arte diskoan argitaratu ez zuena. Lan honetan Berako musikari taldea dago (Fernan eta Joseba Irazoki, Iñigo eta



Maikel), Pettiren ondoren beti izan direnak (Mak, Onddo, etab.). Hauek gain Xabier Montoia eta Beñardo Goietxeren

laguntza ere jaso du.

Kobak

lildo beretik jarraituz, musika inprobisatuaren

inguruan lan egiten duen Kobak taldeak kontzertua eskaini zuen Lurra- ren Egunaren bezperan. Xabier Erkizia, Xabi Iturria eta Mikel Etxegarai gazteek osatzen duten hirukotea, Suitzako KLAT kolektiboarekin elkarlanean, Donostiako Arte Ekinbideak antolatutako Calcinatio ikuskizunean eman zen eza- gutzera duela urtebete. Geroztik taldeak hainbat kolaborazio egin ditu, bertzeak bertze Ixi Project edo Sinuose bezalako taldeekin.

Kobaken kantu bat Mp3 formatoan www.ertza.net web-orrian dago entzungai.

FLASH

Bertso afaria Agerran

Azaroaren 9an bertso afaria antolatu du Agerra Mendi Taldeak Lizaso eta Mendiluze bertsolariekin elkartearen egoitzan 21:30etan. Izen emateak azaroaren 6a baino lehen egin behar dira 948631130ra deituz. Prezioa 23 euro eta menuan bakailua saltsan, bildots erreka, postrea, ardoa eta txanpaina, kafea, kopa eta puroa izanen da.

Hitzaldia

Udazkeneko Irakurraldia Zikloaren barrenean Aingeru Epaltza idazleak solasaldia eskeinitu du azaroaren 8an. Rock & Roll da bere azkeneko liburua eta honetaz eta bere ibilbideaz arituko da Udal liburutegian 19:30tatik aintzinerat.

Antzeko Parezido Mutrikun

Mutrikun ariko da Antzeko Parezido antzerki taldea azaroaren 9an. Mutrikuko Goizeko Izarra taldeak jaialdia antolatu du eta beratarrek gonbidatu ditu Irlandan izan ondotik.

Nafarroa Oinez

Urriaren 20an Tuteran ospatu zen Nafarroa Oinez eta eskualdetik jende mordoxxa hurbildu zen. Lan egitera joateko deialdia egin zuten Labiaga Ikastolatik eta beratarrek emandako erantzuna aipagarria da, 41 lagun joan baitziren Tuterako Argia Ikastola laguntzeko.

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

LESAKA

San Fermin jubilatuko elkarteak bere eguna ospatu zuen urriaren 27an

Zambra Dance Cluba azaroaren 9an irekiko da

Aitor AROTZENA

Igande honetan bere besta egun handia ospatu du San Fermin erretiratuen elkarteak. Goizez, aurten hildako bazkideen aldeko meza izan zuten eta gero bazkaria egoitzan. Bazkalondoan, aurten jokatutako txapelketen sariak banatu ziren. Musean, Sumusuako Patxi Zapirain eta Celedonio Olagarai izan dira aurtengo txapelak eta Benito Donazar eta Juanito Mazizor azpitxapeldun. Seien txapelketan, Felisa Taberna eta Julia Maia suertatu dira garaile, finalean Celedonio Olagarai eta Patxi Zapirain irabazita; Despiste txapelketan Maite Ortega eta Carmen Larralde txapeldun, Jesus Telletxea eta Txelo Aldaraborda azpitxapeldun. Araututako martxan, Jose Agirretxe eta Escolastico San Julian izan ziren onenak eta Juanita Almandoz eta Elvira Etxarte bigarren. Jesus Telletxea gailendu da bolu eta toka txapelketan. Igel txapelketan, berriz, Jose Garcia suertatu da txapeldun. Sariak banatu eta gero dantzaldia ere izan zuten.



ARGAZKIA: AITOR

Aitzineko alean aipatu genuen Aceralian egindako hauteskunde sindikalen berri. Emaizta horien ondorioz, enpresa batzordea osatu da. Lehendakaria, argazkian ageri den LAB sindikatuko Batti Eskudero izanen da, aspaldian Irunen bizi den zubietarra, hain xuxen. Idazkari kargua ELAko Luis Mari Telletxeak beteko du.

KIROLA

Arkupe pilota elkarteko pala motza eta paleta goma txapelketak azken txanpan sartuak dira

Arkupe Pilotazaleen elkarteak antolatu dituen gizasemeen pala motza eta emakumeen paleta goma txapelketak azken txanpan sartuak dira eta finalerdiak jokatuko dira larunbat honetan.

Pala motzean, urriaren 19an jokatuko ziren final laurdenetan, Garcia eta Carralek 40-29 ira-

bazi zieten Miera eta Etxeberriari. Aurten Munduko txapelketan urrezko domina lortu duen Xabi Zozia lesakarrak eta Zazpek 40-17 irabazi zieten Ormaetxea eta Garciari.

Partidarik estuenean, Eskisabel eta Ducruilek (azpitxapeldun Munduko txapelketan) 40-39 ira-

FLASH

Bideogintza ikastaroa

Azaroaren 1ean akautuko da Lesakako Herri Eskolak antolatutako bideogintza ikastaroan izena emateko epea. Izarra okindegian egin behar da 30 euroren truke. Gidoia, kamararen erabilera eta edizio digitala ikasiko da.

Oskorri eta Dance Clubaren inaugurazioa Zambran

Ortziral honetan, azaroak 1, Oskorri taldearen emanaldia izanen da 20:00etatik aitzinera Zambran. Azaroaren 8an, berriz, Juanes taldea ariko da. Aitzinetik Coti ariko da telonero gisara eta ondotik, El Genio DJa. 23:00etan hasiko da ekitaldia. Azaroaren 9rako Zambra Dance Clubaren inaugurazioa iragarri dute, 23:00etatik aitzin. Heiko Laux, Alexander Kowalski, djak, performance, gogoak, suak, house eta techno house musika entzungai.

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZAZPEK
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR

Herrian gelditu ziren Usategietako Igandean zozketatutako bi sariak

Eguraldi ona egin bazuen ere, haizeak sareak hedatzea eragotzi zuen

Joseba eta Nerea

Usategietako igandea eguraldi apartarekin joan zen, nahiz eta usategietan zebilen haizeak sareak paratzea eragotzi. Arratsalde partean besta giroa herrira zabaldu zen, Jalisko Bandek animaturiko dantzaldira jende mordoa hurbilduz. Egun honekin Altxata kultur elkarteak ostatua paratzen du frontoian, biltzen den diruarekin dantzarientzako arropak egiteko. Helburu berarekin egin zen aurten 12 usoen zozketa. Iaz bezala, herrian gelditu dira bi sariak; lehenengo saria Armitxeko Kontxi Miklestorenak irabazi zuen eta bigarren saria (herriko bestetan motozerarekin egindako egurrezko figurak) Iriberriko Arantxa Zubietak. Altxata Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie bai Andra Mari dantza-taldeko kideei baita egun hau antzineraren atzetan lagundu zuten herriar guziei ere.



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Udazkeneko kultur egunetako azken ekitaldia urriaren 19an burutu zen Herriko Ostatuan. Protagonistak Sustrai Kolina, Andoni Egaña eta Xabier Silveira bertsolariak izan ziren, 70 lagun inguru bildu zituen bertso-afarian. Joseba Olagarai gai-jartzaileak proposaturiko gaiei umore onarekin eta zenbait herritar zirikatuz erantzun zieten bertsolariek, bildutako guzuen irriak eraginez. Herriko Euskara Batzordea gustura ageri zen bertso-afariak eta Kultur Egunetako gainerako ekitaldietan izandako arrakastarekin.

Etxe izenen errotuluak jartzeko kanpaina

Udalak etxe izenekin errotuluak jartzeko kanpaina bultzatuko du urtea akabatu antzinetik. Herriko Euskara Batzordearen proposame-

na izan da kanpaina hau, eta horren arabera, etxez etxe informazio-prospektu batzuk barnatuko dira kanpainaren arrazoiak eta azalpenak emateko.

Izan ere, lehen izena ematen zitzaien be-

zala, orain zenbakia ematen zaie etxeei, eta badirudi, zenbakia erabili behar dugula izenaren orde. Hori dela eta, gure betiko ohiturari eusteko deia egin dute Udalak eta Euskara Batzordeak, eta bidenabar, he-

FLASH

Karriketako azkeneko obra

Nahiz eta duela hiru hilabete herriko karriketako zolak berriro zizutzen, oraindik zenbait obra akabatu gabe gelditu ziren. Adibidez iraillean, obra egiterakoan tapatutako arketak agerian utzi zituzten eta baita bide gorri eta beltzen arteko loturak zehaztu ere. Orain karretera bazterreko marrak margotu eta zenbait bide-seinale paratu dituzte.

Bataioak

Aurten izan diren bi bataioetan, aspaldian ez bezala, haur kopuru handia bataiatu da. Joan den igandean, urriak 27, ere halaxe izan zen. Hauek izan ziren bataiatu ziren haurrak: Agerbereko Asier eta Gorka Egibar Iraola, Eguzkitzako Xabier Telletxea Irazoki, Ura Mendiko Maria Martin Baiona, Arburuko Olaia Iturria Martinez, Aranberako Uxue Telletxea Torres eta Artxintzeko Joseba Otxoteko Retegi.

rritar guziei etxe izenarekin errotulua jartzeko animatu. Kanpaina honen batera, etxe bakoitzaren izena eta helbide osoa xuxen idatziako ere jakinarazteko ere aprobeixakoa dute.

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

lore denda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazioa
Tabakoa	Enkuadernazi
Opariak	o
Kukuxumusu	lanak
kamisetak	Inprenta
	lanak

Egunero-txikia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO

TSIVATU - JATETxea

IGANTZI

Udazkenarekin batera ikastaroen sukarra etorri zaigu

Lesakako Etxarte eraikuntza enpresak eginen du mediku kontsulta

Oskar TXOPERENA

Udazkenak bizimodu berria dakarkigu urtero, eta jakina, udazkena Igantzin Sanmigelen ondotik hasten da. Horren seinale ikastaro ezberdinen antolaketa izaten da. Aurtengoan badu nahi duenak zer egin. Aipa ditzagun banan-bana: Helduentzat soinketa edo gimnasia ematen du Mikel Iriartek astean bitan, astearte eta ortzegunetan 19:30etatik 20:30etara eta oraingo 8 lagun hasi dira; eskulanean, berriz, bi talde ari dira Puyrekin, batzuk asteartean 3etatik 5etara eta bertzeak asteazkenetan 7:30etatik 9:30etara, 20 lagun denetara; Amadeo Arretxearekin, berriz, astelehenetan 8etatik 9,30etara 8 lagun ari dira euskal dantzak ikasten. Aerobic ikastaroa ere antolatu nahirik ari direla aditu dugu. Zerbait gauzatzen bada jakinaraziko dizuegu. Horretaz gain, haurrek ere hasiak dituzte ingelera,



MARTIN LEGARRAK UTZIA

Urriaren 19an janari eta gainerakoak kargatzera Irunen bildu ziren Behar Bidasoaren laguntzaileen argazkia da hau. Ikusten ahal denez Arantza eta Igantziko jendea ere hurbildu zen lanera. 38.000 kilo bildu dira. Kopuru handi horretatik zati bat Igantzi eta Arantzako Parrokietan bildutakoa da. Azken kanpaina honetan 2.000 euro eta 2.280 kilo janari bildu dira bi herritan, aitzinekoan bildutakoaren hagitz antzeko kopurua. Ohar bat zabaldu dute bi herrietako Parrokiek lagundu duten guzietan eskerrak emateko.

frantsesa, solfeo, piano, txistu eta koral ikastaroak, eta lehen ere aipatua genuen pilotarena. Badago non aukeratu.

Kontsulta berria egiteko lanak

Arazo haundiak izan ditu Herrikoetxeak kon-

sulta berria Barazarreko lanak nork egin arrautzeko. Dakizue, medikuaren kontsulta eskoletatik bertara eramanen da. Igeltsero bat baino gehiago agertu omen da proiektua ikustera, baina aurrekontua motzegia iduritu zaie

nonbait. Aitzin horretan, ordea, Lesakako Construcciones Etxartek eskaintza egin zuen eta Herrikoetxeak urriaren 18an berari ematea erabaki zuen. Lanak 72.000 euro gostako dira eta hagitz abudo hasiko dituela agindu omen du.

Herria ezagutzuz



Barazarrea

Latsagako Iturriaren inguruan dauden etxe gehienak bezalaxe hagitz zaharra da Barazarrea. Herrian dagoen aipamen idatzirik zaharrena Parrokiko artxiboko hildakoen liburu batean agertzen den hau izan da seguraski: "Margarita de Vараççarr". 1624ko batean "Baraççarrea" ere ikusten ahal da. Gaur egun Bazar deitzen badiogu ere, garbi dago jatorrizko izena Baratzezarrea dela. Utz ditzagun momentuz, ordea, istorio zaharrak, eta, bertan mediku kontsulta paratu behar dutenez, XX. mendeko Beheko Barazarrearen berri eman dezagun. Beheko Barazarrea 1914an erosi zuen Herriko Etxeak, azienda hiltegia paratzeko helburu jakinarekin gainera: 54 l./145 "comprar la casa de Barazarrea y habilitarla para sacrificar toda clase de reses (...) precio de cuatrocientas pesetas". Hurrengo hiru urteetan obra handiak egin ziren, baina, orain dela gutti arte ezagutu dugun hiltzgia 1945ean egin zuten Juan Mugaburu eta Miguel Lizardik 900 pezetatan. 1966az geroztik ferrategia izan da eta baskula ere bertan paratu zen geroago.

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



SAROBÉ

okindegia

SANDERS Pentсуak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ARANTZA

Hamasei gazte Bortzirietako pilota txapelketan parte hartzen ari dira

Udazkeneko Kulturaldia astehondar honetan egingen da

Nerea ALTZURI

Herrian beti somatu izan da pilotarekiko afizioak ez duela etenik. Udan, Ekaitza elkarteak antolatuta, herriko pilotari zaletuek mailaz mailako bikoteak egin eta Amabirjin bestak bitarte prestatu, eta bes-tetako goiz batean herrikoen arteko pilota partiduak eskeintzen dira (aurten hondar egunean, igandean). Baina kirol honetan aritzeko grinak indarrez segitzen du. Herriko gazte talde bat Belate pilota elkar-teak antolatu Bortzirietako eskupilota txapelketan parte hartzen ari da aurten ere. Urriko hila-bete honen lehenbiziko aste hondarretik abiatu da bigarren urtez aipatu lehiaketa hau eta astebukaerero pilotari hauek bertze bortziriar, hendaia eta irundar kirolariekin partiduak jokatzen ari dira. Herriko pilotalekuan ere pilota partidak burutu dira, aste hondar honetan atsedena izanen delarik he-



ARTXIBOKOA

Berriz ere txapelketa batean murgilduak daude herriko pilotari gaztetxoak.

rrikoentzat. Txandakataxandaka herri ezberdinetako frontonetan aitzinera doa eskupilota liga eta pilotazaleek ere badituzte non pasatu astehondarretako goiz arratsaldeetako orduak.

Ekaitza elkartearedezkatuta, Markel eta Jon Jorajuria, Beñat eta Andoni Mitxelena, Iosu Larretxea, Joseba Madariaga, Imanol Mitxelena, Unai Iparragirre, Julen Oteiza, Ander Al-

mandoz, Julen Oskoz, Jon Alzuri, Joseba Pikabea, Eneko Ordoki, Alberto Fagoaga eta Xabi Larretxea ari dira txapelketan parte hartzen. Kategoria ezberdinetan herrikoen artean egin dira bikoteak. Markel, Beñat eta Eneko bortziriar eta irundarrak dituzte bikoteak.

Herriko Etxetik bandoa

Abendu aldera, Na-

farroako Nekazaritza Ganbarako bigarren hauteskundeak egingen dira. Hauteskunde horietan botoa eman dezaketen herritarren zerrenda jende aitzinean dago ikusteko.

Norbaitek bere ize-na dagoen ziurtatu nahi badu, edo bertzelako erreklamaziorik egin nahi izanez gero, hila-bete honen bukaera bitarte egonen da zerrenda ikusteko.

Arantzako Kultur Egunak

Ortzeguna 31
19:30etan hitzaldia Zahar Txokon. Pello Zabala: «Euskal Herriko eguraldia eta tenporak».

Ortzirala 1
VII. Baserritarren Eguna
10:00etatik aitzinera baserritarren produktua erakusgai frontoian. **12:00etan** Alkarkide txaranga herri barna. **14:00etan** bazkaria Zahar Txokon, Mendizabal eta Zeberio bertsolariekin.

Larunbata 2
17:00etan antzerki emanaldia eskolan. Bihar taldea: «Kli, kla, birzikla». **18:00etan** haurrentzako berendua eskolan. **19:00etan** mus txapelketa Ekaitza elkartearen haur eta gazteentzat. **22:00etan** Mus txapelketa Ekaitza helduentzat.

Igandea 3
11:00etan Kulkirekin herri kirolak haurrentzat frontoian. **17:00etan** Agoitzeko dantza taldea frontoian.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Harategia

Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

ITUREN

Aurtizko Sanmartinak azaroaren 8tik 11ra

Igande eguerdian aizkora
apostua jokatu da

Ortzirala 8

20:00etan suziria eta ka-
lejira txistulariekin.
21:00etan pazi-zopak.
Ondoren gaupasa JA-
LISKO BANDekin.

Larunbata 9

10:00etan argisoinea
txistulariekin. **13:00etan**
nesken III. Proba kon-
binatua. **16:30etan** pla-
ter tiraketa. **17:00etan**
trikitixa jaialdia: Lesa-
katik, Beratik, Zubietatik,
Sunbillatik eta Ituren-
dik etorritako ikasleak.
Ondoren TRIKIDANTZ
taldea. **12:00etatik aiz-
tzin** dantzaldia JALIS-
KO BAND taldearekin.

Igandea 10

Umeen Eguna
10:00etan argisoinea.
13:00etan aizkora apus-
tua. **17:00etan** hau-
rrendako jokuak. Ondoren
berendua. **Arratsaldez eta gauez**
dantzaldia JOXE ANGEL.

Astelehena 11

San Martin eguna
10:00etan argisoinea.
10:00etan mus txapel-
keta. **11:00etan** Meza
Nagusia. **14:00etan** he-
rri bazkaria Mañukorta
eta Peñagarikano bert-
solariekin. **Arratsaldez
eta gauez** dantzaldia
JOXE ANGELEkin.



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE
ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA



© 948631076 • BERA



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



DONEZTEBE

Mendi abesbatzak kide berriak hartzeko deialdia egin du



Astelehen eta ortziraletan biltzen dira zineman


ttipi-ttapa

Egunotan partaide berriak hartzeko kanpaina egiten ari da Mendi Abesbatza. Jendea kantatzera animatzea da beraien helburu eta «horretarako ez da beharrezkoa musikako arlo guztiak menperatzea, gogoia nahikoa da». Astelehen edo ortziralean zinema aretotik pasatzea aski da.


Ruth Etxebeste, Mendi abesbatzako lehendakariak adierazi digunez, «duela sei urte Mendi abesbatza sortu zenean jende aunitz hasi zen, baina ikasketak direla edo lana dela, gazte gehienek utzi egin dute ondoko urteetan». Arestian aipatu bezala, Mendin parte hartu nahi duenak ez du baldintza berezirik bete behar. Ruthek dioenez, «solaslasteko ahotsa izatea aski da. Gehienak doneztebarrak gara, baina badira Sunbilla, Oitz eta bertze herrietakoak. Edozeinek har dezake parte». Hori bai, deialdi berezia egiten diete mutilei, ez baitira sobera animatzen.

Etorkizunari begira, azaroan Leitzan eginen den Abesbatzen Topaketan parte hartuko dute Mendikoek eta Aste Sainduan kanpora joateko asmoa dute.


I U U EZTEN ES EZI LIST K




Zur s sun z ntz




Zur ut z ntz



Zur h z untz z ntz



M n z ntz



Zur ru z ntz

urr z n s z lst r

Zur... (unreadable small text) ...

G rr ntz tsu
ZU Z Y

NAFARR AK
RUR L KUTXA

GOIZUETA

Kultur ekitaldiz bete dute udazkena

Pello Zabala eguraldi gizona eta Juan Mari Beltran musikaria herrian izanen dira

Esteban AROTZENA

UEMAko Kultur Elejira eta Arte eta Kultura kanpainen barrenean antolatutako hainbat ekitaldik giro ezberdina emanen diote aurtengo azaroko asteburu guziei. Hauetaz gain aipatu beharrekoak dira 60. hamarkada gogoratzuz Gazte Asanbladak eginen duen afari herrikoia eta Umore Onaren eskutik lehengo igandean ospatutako Zaha-

rren Eguna, Iñaki Perurena ere tartean izan zelarik.

Egutegian hurbilen dauden ekitaldiekin hasiz, esan dezagun azaroaren 9an Juan Mari Beltran izanen dela herrian, hainbateuskal musika tresna zahar erakutsi eta joko dituelarik 20:00etatik aurrera. Hilaren 16an, berriz, Pello Zabala ospetsua etorriko da eguraldiari buruzko kontutaz hitzegin



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Iban Loiarrek eta Igor Apezteak irabazi berri dute Gartzarongo Torneoako gazte mailako zapela. 17 eta 18 urteko bi pilotari hauen progresioaren seinale da zalantzarik gabe garaipen garrantzitsu hau.

asmoz. 19:00etan hasiko du Pellok bere hitzaldia. Aipatutako bi ekitaldiak Herriko Etxeko ganbara Kultur Aretoan eginen dira. Udazken honetarako antolatutako gainerako emanaldien berri zehatzagoa

hurrengo alean jaso ahal izanen dute gure irakurleek.

Landaketak Berdabiorentzat

Aurreko ale batean aipatu genituen Kinttaliko, Gaintzin eta Petri-

xenea inguruetan egin asmo ziren landaketak. Enkantera atera ziren lan hauek eta Andres Eskudero «Berdabio»ri eman dizkio Udalak. Hurrengo martxora arteko epea du Berdabiok lanak bukatzeko.

ARESO

Hainbat lan egingo ditu Joarbe enpresak

Gorretira doan pista eta eskola azpiko ikuilu xaharra moldatuko dira, besteen artean

Juana Mari SAIZAR

Hainbat obra eta konponketa udalak eman dizkio Joarbe S.L. enpresari. Gorretira doan pista edo eskola azpiko ikuilu xaharra, besteak beste. Soto honetan eskolako hainbat material gordetzeko erabiliko da.

Pista moldaketa

2002 urtea bukatu baino lehen Abaleku,

Museo, Merku eta Altolako pisten konponketak bukatu behar omen dira. Pista batzuk aziententzako erabiltzen dituzte eta beste batzuk mendi lanetarako.

Ikastaroak

Dantza txiki, pandero eta trikitixa ikastaroak antolatu ditu Guraso



ARGAZKIA: JUANA MARI

Uxue eta Olaiaren bataioa egun berebean ospatu dira. Ez da ohikoa bina-ka egitea, baina aurtengo urtea oparoa dugu, beste hiru umetxo ere herrian jaiotzea espero baitugu.

Elkarteak. Apuntatzeko ohiko lekuetara jo behar da.

Erreziboak

Udala azaroan hasiko da hainbat errezibo

kobratzen: zaborra, ura, saneamendua eta kontribuzioak.



Aziendak goizean eta kirolak bazkalondoan

- Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak ariko dira eguerdian
- Nafarroa-Gipuzkoa desafioa izanen da aizkoran

San Martin ondoko asteko ortzirala, aurten azaroaren 15a, egun seinalatua izanen da Doneztebe eta Malerrekako bizilagunentzat. Azienda feria eguna ailegatu da. Goizean, beti bezala, aziendak ikusi eta ferianteen postuen barna harat-honat ibiltzeko modua izanen da. Eguerdian, Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariek alaituko dute bazkalaurreko giroa. Azkeneko urteetan ohiko bertso-bikote bihurtu

da hau. Bazkal ondotik, berriz, herri kirola ikusteko aukera izanen da, aspaldiko ohiturari eutsiz. Aurten ez da txapelketa ofizialik izanen, ezta Mindegiari omenaldirik ere, baina joan den urtean bezalaxe, Nafarroa eta Gipuzkoako aizkolarien arteko desafioa izanen da. Txapelketak akitu ondotik sasoi onenean etorriko dira aizkolaria eta denboraldia akitzeko saio polita eskaini nahiko dute.

Julio
REBOLLEDO

Oizko Ostaturia
OITZ



Osagaiak (4 lagunendako)

- 2 usakume • 4 tipul handi • 2 azenario • porru bat
- 3 baratzuri hortz • erregin sagar erdi bat
- ozpin golarakada bat • 200 gr. onddo
- oliba olioia • katilu bat arroz • 2 foie xerra

Usakumea arroza eta onddoekin

Usakume saltsa prestatzeko

Osagaiak: • hegal eta ixterrak • 3 tipul • azenario bat • porru bat • haragi salda eta oliba olioia

Usakumearen hegal eta ixterrak moztu eta olioia eta baratzuriak dituen kaxula batean gorrixtu. Ateri kaxulatik hegalak eta ixterrak eta olio hartara bota barazkiak puska handitan ebakiak. Gorritu direnean sagar puxkak eta ozpina botako diegu. Gero, bota berriz hegal eta ixterrak eta haragi saldarekin estali. Utzi egosten, egin arte. Ateri hegalak eta ixterrak. Gelditu den saltsa iragazki txinatarretik pasatu. Saltsari gatz punttua hartu eta berriro ixter eta hegalak bota.

Arroza

Osagaiak: • katilu bat arroz • tipul bat • azenario bat • 200 gr. onddo • trufa • oliba olioia eta haragi salda. Tipula eta azenarioak fin-fina moztu eta su ez-tian gorritzen jarri. Ondotik, onddoan, trufa eta arroza gehitu eta haragi salda erantsi. Utzi egosten xuabe 8 minutuz. Segidan, erantsi arrozari usakumeen saltsa hegal eta ixterrekin.

Bularkia eta foie

Gorrixtu lau bularkiak larru-azalaren aldetik su bizian. Gorrixtu ondotik, haragia zatitan moztu. Foie xerrak ere su bizian pasatu.

Platerean jartzeko

Plater xokodunean, arroza lehenik eta gainean bularkia zatiak eta foie.



- Etxegintza eta burdindegi materialak
- Zeramikak: Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato
- Teila frantsesak: Guiraud, TBF
- Egurrezko sukaldeak
- Tximiniak

© 948 450305
© 948 450068
DONEZTEBE



Orain
LACUNZA banatzaileak



© 948 63 11 88

BIXEN
ostaturia

Bokadillo eta
pintxo goxoak

© 948 450383
Amezitia 5
DONEZTEBE

Juana
OTEIZA

Belarra
jatetxea
DONEZTEBE



• Basurdea saltsan

Basurdea saltsan



Osagaiak

- Basurde haragia
- Tipula
- Baratxuriak
- Ardo beltza
- Patatak

Prestatzeko manera

Basurde haragia odolaz ongi garbitu. Gatza eman, puskatu eta irinean pasatu. Zar-tagian pixka bat gorritu eta kazula batera bota.

Kazula horretan, tipula eta baratxuriak bota. Segidan, haragi puska eta ardo beltza erantsi. Haragia tapatu arte uraz estali.


Irakiten hasten denean sua moteldu eta bota gatz lodia. Haragia egina dagoela ageri denean, bota patata puska eta utzi egosi arte.

Bukatzeke, gatz puntua hartu eta listo!

MARTIN HARATEGIA

bertako aretxiak

Tfnoa: 948 450 160
Parrokia 1, DONEZTEBE



SALDIAS

HARATEGIA

*Bertako haragi
frexkoetan
espezializatuak*

Karrika Nagusia 21
© 948 450191
DONEZTEBE



Elizagibela, 7 Behea
© 948 45 01 02
DONEZTEBE

**Ingelesa ikasteko
modurik errax
eta atsegina**

*Ongi pasa
feriak!!*

ZAPATADENDA
PAPERTEGIA
ESTANKOIA



Gizoseme,
emakume eta
haurrendako
oinetako
aukera zabala

Tel eta Faxa: 948 450 289
e-posta: costiz@teletel.es
Parrokia 17• DONEZTEBE



Maderas Zabala, S. A.

Kortinarako sistemak
Bertako eta inportazioko zurak
Oihan esplotazioak
Zerrategia eta sekaderoak

Tel.: 948 450135 • 948 450632
Faxa: 948 450498 • **DONEZTEBE**



© 948 63 11 88

**LURRINDEGIA
APAINDEGIA**



— Solarium bertikala
— Bitsidenda eta osagarriak
— Estetika:
Diagnosi personalizatuak
Siera Doktoreak
lagunduta. Lotinarik gabeko aurrekontuak

Amezia z/g
Tfnoa: 948 450 163
DONEZTEBE



1940 urtetik

Lácar Etxea

- Emakume eta gizonendako arropa
- Laneko arropa
- Mertzeria
- Etxe barnekoak: Bisilloak, kortinak, edredoi nordikoak, maindireak, toaiak, alfonbrak...
- **MOSHY** almohadak

C/ Sta. Lucia, 3 • 31140 Doneztebe

Jose Luis
GOROSTIAGA

Barranka jatetxea
EZKURRA



- *Usoa saltsan*
- *Birigarroa*

Usoa saltsan



Osagaiak

- 4 Uso
- 2 baso oliba olioa
- ozpin pixka bat
- 4 tipula
- 2 azenarioak
- 2 erregin sagar
- 2 baratxuri ale
- baso bat ardo beltz
- wiskia txorrotada bat

Prestatzeko manera

Usoak ongi garbitu, lumak erre eta uso bakoitzari kutzare bat ozpin bota, olioa ontzi batean berotzen jarri eta usoak sartu pixkat gorritzen. Ondotik baratxuri aleak eta tipula hauek pittin bat egin direnean azenarioak sartu eta azkenik erregin sagarra. Saltsarako erabiliko ditugun osagai guztiak zati haundi xamarretan zatitu.

Osagai guztiak gorritu direnean ardoa eta wiskia erantsi eta su suabea utzi egiten, usuen bularraldia goiti begituz, ura edo salda erantsi behar duenean. Ordu t'erdi pasatu denean usuei buleta eman. Tarteka usuak eginak dauden begiratu, denak ezbaitira denbora berean egiten.

Usuak eginak daudenean bertze ontzi batera ateri eta barazki guztiak pasa puretik pasa eta gainetik bota, bertze 5 edo 10 minutu utzi su ezitan gustua hartzeko.

EUSKAL BASERRIAREN

Albaitaritz

948 580 980

Alta Donostia 7 · Tfnoa: 948 580 980 · Faxa:

SHANTI OSTATUA

Pintxoak
Kubata eta
Mojitoan
espezializatuak

besta zoriontsuak pasa!

Amezia 14 · DONEZTEBE

AETXINEA ERRETEGIA

ITUREN

Feria onak pasatu!

Tfnoa: 948 450 410



Biligarroa

Osagaiak

- 6 biligarro
- baso bat oliba olioa
- ozpin pittin bat
- tipula eder bat
- 2 baratzuri ale
- baso bat ardo xuri
- ura
- arroza kafe katilu bat

Prestatzeko manera

Biligarroak ongi garbitu, lumak erre eta ozpin pittin bat bota bakoitzari, olioa ontzi batean berotzen jarri, biligarroak eta ongi xehetu ditugun barazki guztiak jarrituko ditugu egiten. Ardo txuria gainetik bota eta biligarroak eginak daudenean (ordu bat, ordu tèrdi) arroza erantsi eta ura bota, arroza egin arte.



kider

**Tarima
Flotagarriak**

Tel.: 948 456 010 • Faxe: 948 456 148
DONEZTEBE



Ameztia 7, © 948 45 02 71 - DONEZTEBE



**A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E karnetak
ateratzen ahal dira**

Feria onak pasa!

© 948 451 929
Leitzarako errepidea, 2 behe • **DONEZTEBE**



Esarte

**AITZINETIK
PRESTATUTAKO
JANARIAK**




**Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan
KONGELATUAK → • Albondigak**

• *Urdaiazpiko, oilasko, piper eta arraultze krocketak*

Jaime Urrutia 35 - © 948 58 01 28 • **ELIZONDO**





*Aurtengo
feriak umore
ederrean
pasatu*

Merkatarien karrika 28
© 948 451826
DONEZTEBE



© 948 63 11 88
ttipi-ttapa@topagunea.com



- Bernizatze-kabina
- Pintura lanak orokorrean

Leitzako bidea • © 948 450734 • 606 377424 • DONEZTEBE

- Kotxea ITV pasatzeko prestatuko dizugu
- Mekanika eta elektrizitatea
- SUZUKI, NISSAN, MITSUBISI eta OPEL ibilgailuak
- Aukerako ibilgailuak
- Tapizeriak garbitzen ditugu
- Ezkontzetarako autoak apaintzen ditugu




Leitzako errepidea • DONEZTEBE
© 948450333



Kontxa gasolindegia

Kalefakzioa • Traktoreak

Deitu eta egun berean edo biharamonean
etxera serfitzen dugu

Garraio enpresetan tankeak jartzen ditugu



Kontxa kafetegia

Bokadiloak eta platerak
Ogi egin berria

Ongi pasa feriak!



Tel: 948 450272 • Faxe: 948 450810
•DONEZTEBE

ZAMBRA

espacjofestivocultural
FESTA ETAKULTURA ESPAZIOA

Ohango Auzoa
Tel. 948 637 609
zambra@zambralesaka.com

31770 LESAKA
Fax 948 637 587
www.zambralesaka.com

AZAROA – AGENDA

ortzitala, azaroak 1
20:00etan • Sarrera: 6 €

OSKORRI

ortzitala, azaroak 8
23:00etan • Sarrera: 20 €
COTI (telonero)

+
JUANES

+

DJ. EL GENIO (bertako DJa)

larunbata, azaroak 9
23:00etan • Sarrera: 20 €
ZAMBRA DANCE CLUBaren
IREKIERA BESTA

HEIKO LAUX

+

ALEXANDER KOWALSKI
DJ TRAMPAS, DJ EL GENIO,
Performance, su-jaleak, video jockey,
Light Jockey, gogos, piroleknia

larunbata, azaroak 16
23:00etan • Sarrera: 20 €

EXTREMODURO

zuzeneko diska berria Zambran
grabatuko dute

+ ZAMBRA DANCE CLUB
ABEL PRAYDA «TYCOON RECORDS»
ROA «GLOBAL MUSCI PAGO»
I: SHEAK «SPC.MUSIC»

igandea, azaroak 17
18:00etan • Sarrera: 6 €

MAIRU antzerki taldea
«ZUGARRAMURDIKO SORGINAK»

larunbata, azaroak 23
23:00etan • Sarrera: 20 €
ZAMBRA DANCE CLUB

WAGON COOKIN «LIVE»

+ NACHOMARCO «LOUDEAST»

CHICO «SOUL»

ortzitala, azaroak 29
23:00etan • Sarrera: 18 €
(kontsumizio 1 dohain)

M-CLAN

+ ZAMBRA DANCE CLUB
DJ. EL GENIO (bertako DJa)

larunbata, azaroak 30
24:00etan

ZAMBRA DANCE CLUB

RICHARD F «SUBLIMINAL»

+ DEMIAN VS,
DEAMON JEE «PORNOGRAPHIC»
(hiru platereko set-a)

Sarrerak salgai: ticktackticket.com,
www.zambralesaka.com

Megadenda guzietan, Xulem, Chastan eta Cirkus
ZAMBRAko taileran, tel: 948 637609

Ederki



Citroen agente ofiziala

Grua zerbitzua 24 ordutan

**Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura
Hidraulikan espezialistak**



Eder



Peugeot agente ofiziala



Donezteben

Leitzako errepidea - Tfnoa: 948 45 05 25

Presio bidezko garbiketa:

- Kotxearen azpialdea garbitu
- Zikina beratzeko aparra
- Argizariaren distira

DONEZTEBE GASOLINDEGIA

Leitzako errepidea, 49
Tel.: 948 451679
Fax: 948 450857

Barnealdeko garbiketa:

- Aspiradora
- Alfonbrak garbitzekoa

Auto-garbitzaile automatikoa



Gasolinera Zerbitzua

- Denda
- Bigarren eskuko kotxeak eta erremolkeak erakusketan

Faloria

LEITZA

339 ehiztari daude herriko mendietan uso pasaren esperoan

Euskaraz libertitzeko manerak erakutsiko dituzte azaroaren 6an

Mikel ILLARREGI

Toki beroen bila urteoro usoek egiten duten bidaia aprobetxatuz, toki guztietan ehiztariak agertu ohi dira, tiro eginez, hauek harrapatu nahian. Oso sendotuta dagoen ohitura da eta aldeko eta kontrako irizkiak azaltzen dira garaia iristen den bakoitzean.

Usoen pasaera baino lehen, mendiko postuak prestatu edo berri-tu egiten dira. Ondoren hiruko taldeak eginez postu hauen zozketari ekiten zaio. Ehun postu baino gehiago eta guztira 113 hirukote, hau da 339 ehiztari. Ez da txantxetako kopurua. Bitartean, tiro hotsak zenbaitetan eta zero alde-ra begira gelditzen gara guztiok.

Euskaraz libertitzeko manerak

Azaroaren 6an, Euskara Zerbitzuak antolatuturik, Kike Amunarriz eta Asisko Urmeneta hiz-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Behobia-Donostia

Urtero, urtetan ospatu den kirol froga honetan, leitzar askok parte hartu izan du. Duela bospasei urte hogeitamabost lagun inguru izan ziren 20 kilometro lasterketa burutu zutenak. Aurten ere, 38. edizioan, jende dexente da prestaketa lanetan ari dena. 1986an, Joxerra Intsaustik (argazki txikian) ordu bete eta lau minutuko denbora egin zuen, zerrenda orokorrean, milaka korrikalarien artean bosgarrena eginez. Azaroaren 10ean korrituko den lasterketa herrikoi honetan parte hartu behar duten guztiei, animo.

kuntzalari ospetsuek, euskaraz libertitzeko manerak erakutsiko digute, Aurrerako lokal-etan 20:00etan. Hemen hizkera informala, gazte hizkera, euskaraz jostatzeko... landuko dira.

110 lagun aerobic egiten

Hau ez da makala! Ez dakigu, kiroldegia- ren beharrak bultzatuta edota ariketak berak erakarririk, 110 ikasle dira Gema eta Nerearen

esku aerobic-a egiten dutenak. Astean bitan elkartzen dira 6 talde-tan eta ongi iraunez gero, maiatza arte, gero ikusiko da ... Aipagarri ere, talde hauetako bat, umeen talde bat dela.

FLASH

Herri epaimahaia

2004ko abenduaren 31a arte indarra izanen duen epaimahaigaien behin-behineko zerrenda aurkeztu du Nafarroako Audientziak. Herriari Mari Carmen Arregi Zabaleta, Lazaro Bujan Arraras, Saturnino Genua Errazkin, Maria Luisa Lazkano Zabaleta, Ion Perurena Escudero, Casilda Telletxea Telletxea eta Andres Zubillaga Mariezkurrena.

Gazteentzako egitaraua azaroaren 2an

Herriko gazte batzuk, azaroaren 2rako, ekimen berezi eta berriak prestatu dituzte nahi duen guzientzat. Arratsaldeko 19:00etan Elektrotuna; poteo eta kalejira punk. 21:30etan Malabarak karrapean. Ondoren, 22:00etan apari autogestionatua Aurreran. Bertsolariak ere izanen dira. Gaueko 12:00etan; Hip-hop-a Kataluinatik etorritako Pirata Sound Sistem taldearekin.

Salsa-merenge

Aurrerak antolatuturik 20 lagun baino gehiago dira, salsa, merenge eta gisa honetako dantzak ikasten ari direnak. Asteartetan biltzen dira 20:30etan eta ordu terdiz "agrikola"ko eraikuntzan, Sonia, dantza irakasle profesionala aurrean dutelarik, pauso eta mugimendu ezberdinak ikasten dituzte. Oraindik talde honetan sartzeko aukera bada.

Maxurrenean

dauden erakusketak azaroaren 4a baino lehen hustu egin behar direla abisua eman du te Nafarroako Gobernutik. Ekainetik hamabostero erakusketaren bat egiten zen.

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA
Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago

☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK
ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK,
MOSKITERAK eta VENEZIANAK

616 513 497

Pitti
ESKABAZIOAK
C/Amadia,1
48100 DONOSTIA (NAFARRA)

BAZTAN

Balleko zortzi errepide hobetzeko lanak laster akituko dituzte

Laurentzeko bihurgunea zabaldu egin dute bertzeak bertze

ttipi-ttapa

N-121-B errepidean eta balleko bertze zapi errepidetan zola berritzeko eta bidea moldatzeko lanak laster akituko dituzte. Baztango errepidetan dabilzan gidariak Amaiur eta Arizkungo sarreretan eta Laurentzeko bihurgunean somatuko dituzte aldaketa nabarmenenak. Zortzi errepideen moldaketa lanen aurrekontua 3.655.427 eurokoa da.

Gaur egun, N-121-B errepidean, Elbete eta Amaiur arteko bidea moldatzen ari dira, arriskua zuten lekuak kenduz eta hobekuntza nabarmenak sartuz. Laurentzeko bihurgunea zabaldu egin dute eta errearen gain 25 metro luze eta 5eko altuera duen pareta egin dute. Hirugarren karrilak Arizkungeko sarbidea errazten

du. Amaiurko sarrera kasik akitua da eta bi errotonda erdirekin moldatu dute. Amaiurko zubia ere zabaldu dute. Azpilkuetako sarreraren ere, lkatzateako bentako bigurutzeko ondoan, lanean ari dira. Herrigunera eta Zuaztoi auzoko sarrerara doan NA-4457 bidea zabalteko



ARGAZKIA: JOSUNE ITURRALDE

Amaiurko sarrera-irteerarako bi errotonda erdi egin dituzte.

lurra kendu behar izan dute. NA-4404 (Irurita Estazioa), NA-4445 (Arrazkazan) eta NA-4403 (Lekaroz) errepideetako zolaberritze lanak akituak dituzte. Erra-

tzutik Izpegira doan NA-2600 eta Lekaroztik Oharrizera doan NA-4405 errepideak ere moldatu dira. Laster, Orabideako errepidean ere hasiko dira lanean

(Askapetik Otsondoko gainera doan NA-4453 errepidean). Azkenik, seinalizazio bertikal eta horizontala, eta babaserako hesiak paratuko dituzte.



IRAKURLEAK MINTZO

Baztandarren Biltzarra elkartearen etorkizunaz

Agur t'erdia:

Aurtengo Baztandarren Biltzarra uztailaren 21ean ospatu genuen, eta besta egunaren inguruan egindako balantzearen ondorioz, Baztandarren Biltzarra elkarteak bizi duen egoera ezagutarazi nahi dizuegu:

Aurtengo Baztandarren besta arras arrakastatsua izan zen (18

orga, kriston jendetza, giro xarmanta...) baina aldi berean, jendearen laguntza lortzea gero eta zailagoa denez, antolakuntzako en lana bikoizten da, eta horren ondorioetako bat, besta antolatzen gabiltzan 12 lagunen erretzea da.

Egoera arras puntu kritikora iritsi denez, Baztandarren Biltzarra Elkarteak, lan taldea indarberritzea **ezinbertzekoa** ikusten du, bertzenaz, urtean barna antolatzen diren ekitaldiak zein hainbertze maite dugun Baztandarren

Biltzarra eguna ospatzea zalan-tzan ikusten baitugu.

Horretaz, Baztandarren Biltzarrrak aintzinat segitzea nahi baduzue, azaroaren 16an, atsaldeko 7etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean eginen den bilerara etortzea eskatzen dizuegu.

Bertzerik gabe, izan ongi!

OHARRA: Zabal ezazue mezu hau zuen inguruko en artean, ahalik eta jende gehien bildu gaitzen.

Baztandarren Biltzarra Elkarte



**BAZTAN
FUNERARIA**

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

**HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK**

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• © 948 580373 • 608 776176



BAZTAN

**ALTZARIAK
zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

Baserriko Emakumearen Astea antolatu du UAGN sindikatuak

Azaroaren 4tik 8ra solasaldiak izanen dira Arizkunenean

ttipi-ttapa

Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Elkartek (UAGN), Cederna-Garalur eta Leader+ erakundeen laguntzarekin baserriko emakumeari eskainitako jardunaldi irekiak antolatu ditu Elizondon azaroaren 4tik 8ra.

Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, astelehenera ortziralerako solasaldiak izanen dira, 15:00etan hasi eta 17:00ak arte. Astelehenetan, azaroaren 4an, «Gizarte trebetasunak eta autoestima» solasaldia eskainiko da. Asteartean, «Ahozko komunikazio teknikak» gaiari buruz solastuko da. Asteazken eta ortzegunetan, ordubetek luzeagoak izanen dira solasaldiak eta bietan solasgai bera izanen dute: «Hurbil zaitez Informatika eta internet-en mundura». Ortziraletan, azkenik, solasaldi-mahaingurua izanen da, «Emakumea eta baserri ingurua, nekazaritza



ARTXIBOKOA

UAGN sindikatuak bere 25. urtemuga ere ospatu du egunotan, Arizkunenean egindako erakusketarekin. Argazkian ageri denez, 1998ko apirilaren 7an ireki zuten Elizondoko bulegoa.

sektorea» izenburupean. Sarrera librekoa izanen da, baserriko emakumeen elkar topatzea, integrazioa eta garapen pertsonala indartzeko asmoarekin.

Bortz izarreko hotela Lekarozen

Lekarozko Aroztegiaren bortz izarreko hotela egiteko jabeak bi-

de publikoak itxi dituela eta arrenkura azaldu dio Lekarozko herriko Balleko Junta Generalarari. Lekarozko batzarren ustez bideak bamenik gabe itxi ditu jabeak eta ez du alternatibarik proposatu. Telleriko iturriaren gain duen eskubideari buruz ere galdetu du Lekarozko batzarreari. Jabeak, be-

re aldetik, itxi duen biderearen ordezkotz bertzegitea bere gain hartuko duela jakinarazi dio Juntari. Afera hau arras garrantzitsua izaten ahal dela eta, proiektuari buruzko dokumentazioa aurkeztea eskatu zaio jabeari, kaltetutakoekin bilera egiten da eta Lekarozko batzarrearen iritzia ere eskatuko da.

FLASH

Agozpeko zabortegia

Agozpeko zabortegia ixteko proiektuaren idazketa eta lanaren zuzendaritza Iruñeko Ibarra Jaso y Asociados enpresak egiten du, 1.500 euroren truke.

Aintzanoko labaderoa

Gartzaingo Aintzanoko labaderoa moldatu eta, bidenabarkoan, tikiago egiteko asmoa du herriak. Honela, ondotik pasatzen den bideari zabaltasun nahikoa utzi nahi zaio. Lanak auzolanetan egiten dira eta materialerako 2.500 euro emanen ditu Balleko Udalak.

Balleko Udaleko web-orri ofiziala

Cederna-Garalur erakundeak egiten du. Aurrekontua 23.259,7 eurokoa da eta Nafarroako Gobernua erdia ordainduko duela hitz emana du. Web-orrian Baztango errekurtsoturistikoa azalduko dira, bertzegiteak bertzegite.

Julian Mitxelena zenari oroitarria

Uztailaren 26an hil zen Julian Mitxelena aperezaren omenez bi oroitarri paratzeko asmoa dute lagunek, Legateko gurutzean eta Lekarozko Kolegio ondoan.

SOULE
Hileta artea
 © 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

JATETXEA
 © 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea
 Jatetxea - Ostatua
 Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
 Braulio Iriarte
 ELIZONDO
 © 948 581807 • 948 581853

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
 © 948581468 • 948580433
 Frantziarako etorb. 12 •
 Ameztialde 3B • **ELBETE**

MENDIALDE
Jatetxea

 AMAIUR • © 948453060

MENDI
OSTATUA
 Santiago 25 - © 948 580313
 ELIZONDO

SARA

Sara-Bermeo-Leitza elkartasun besta giro hoberenean egin da

Hitzordu bereziak urriko lehen bi asteburuetan

Xan HARRIAGUE

Urriaren 12an eta 13an iragan da Leitza, Bermeo eta Sarako herrien artean, herriko gazteek Euskararen alde antolatu zuten besta. Giro hoberenean pasatu dira denak, jende alde ederrarekin.

Sarako gazteek laguntza ekarri dituzten jende guziak eskertzen dituzte: St. Joseph eskolako trikitixa taldea, gaiteroak, eskudantzariak, txistulariak, dantzariak, pilotariak eta partikulazki Senperetik etorri diren 3 gizonak Sarako kantari bakarbatzuen laguntzeko. Bertzalde Herriko Etxeko Edantegiak ere bere musikariak ekarraraziak ziotuen eta Lastiry jatetxe-koek plaza animatzea-gatik eskaini bazkariak azpimarratzekoak dira.

Gazteek, esker beroak ere dituzte axo jatea eta zikiro hoin goxoak prestatu dituzten sukaldari eta laguntzai-



ARTXIBOKOA

Bermeon bezalaxe, Saran ere ederki pasatu dituzte euskararen aldeko egunak, Leitza, Sara eta Bermeoko gazteek.

leentzat, ahantzi gabe nunbrea etorri Sarata-rrentzat, denen umore onik gabe ezingo baitzen holako bestarik antolatu. Nola ez eskertu Bermeo eta Leitzakoak!

Besta antolatzeaz gain larunbat goizarekin bilkura bat iragan da Herriko etxean euskara sustatzeko herri bako-tzetako esperientziak trukatzeko. Saran, Bai

Euskarari kanpaina abiatzen bertzerik ez bada, Leitza, 20 urtez, pittaka pittaka, herritarrek, elkarteek eta Herriko etxeak egin indarrek fruitu gaitzak ekarri dituzte hizkuntza idatzia zoin mintzatua leku guzietan (saltegietan, herriko etxean, ostatuetan, afitxetan) berriz agerraraziz. Ea Saran ere Bai Euskararik ideki duen

bidea hartzen errausitzen dugun!

Euskal presoak Euskal Herrira elgarretaratzeak

Azken alean erran bezala, Euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko elgarretaratzeak ez dira hilabete hondarreko azken ortzegu-netan egiten baizik eta ortziraletan.

FLASH

Errugbia

Urriaren 20an, igandearekin Sarako taldea Azkaineren kontra aritu zen. Usaian bezala, jende aintz hurbildu ziren bai Saratik eta bai Azkainetik. Saratarrek lehen bi partiduak irabazi bazituzten ere,aldi huntan galdu zuten 9 eta 15. Hala ere hortan ez ziren gelditu eta okasionea baliatu zuten elgarrekin trago batzuk edateko eta solasean aritzeko beti bezala holako derbi batean umore onean.

Esku baloneko emaitzak

Urriaren 19an 11urte azpiko taldeak jokatu zuten partidua galdu zuten Irri-sarriren kontra. 15 urte azpiko taldea asteburu hortan ez zen aritu eta azkenik helduek irabazi zuten Escubesen kontra 10 eta 7.

PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrialak
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88

ZOANSA

SEAT AVOI VW SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Tel.: 948 62 55 55 • Faxes: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SENPERE

Beñat Antxordoki bidarraitarra da laborantza lizeoko zuzendari berria

Albert Zubillagak erretreta hartu du 28 urtez buru izan ondotik

Franck DOLOSOR

Beñat Antxordoki bidarraitarra izanen da Saint-Christophe laborantza ikastegiko zuzendari berria Albert Zubillaga erretretara gan baita 28 urtez horko buru eta erakasle egon ondoan. Española eta laborantza tekniko era-katsi dituen aldudarrak untsa ezagutu ditu Saint-Christophe hastapeneko gora-beherak. Laborantza munduko al-daketen ondorioz berri-tasunak sortu ziren Bo-rotza erretorrek ireki zuen ikastegi pribatuan, bereziki INRA itsas eta erreketako munduak zaintzen dituen erakun-dearen zabaltzearekin. Hastapenetik hartu-eman biziki onak izan dituzte bi zentroek eta elkarlan frango egin da urteetan ikasleek ikas-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Ehun bat jendebildu zen Albert Zubillagari milesker eta agur errateko.

taldiak egin ditzaten. Gaur, 200 gazte dabil-tza laborantza ikaste-txean 18 eskola emai-leen laguntzarekin. He-mendik goiti, Beñat An-

txordoki izanen da hor-ko burua eta hunen xe-dea da Saint-Christop-he «Euskal Herriko in-guramenaren lizeoa» izatea.

Zorionak Zubillaga jaunari herria, laboran-tza eta gazteen alde lan ainitz egin baitu eta on-gi etorri Antxordoki zu-zendari berriari.

FLASH

Souffle de vie elkartean berri ilunak

Aintzira aldean kokatua den "Souffle de vie" el-karteko diru-zain ohiari bi urteko presondegiz gorra kolokan eta 11 000 euroko isuna eman dioz-ka Baionako auzitegiak. Justiziaren arabera, 63 urteko erretretaduna bo-londres gisa lanean ari zen HIES (Sida) erita-suna jasaten duen jen-dearen zentro huntan eta dirua ebatsi zuen el-karteko kutxan duela bortz urte. Bertze elkarte batzuetan ere diru ebas-ketan aritu da kondena-tua izan den gizon hau. Bertzalde, urriaren 15ean etxe hortako bi bizilagun kolpeka aritu ziren eta batek bertzea larriki kolpatu zuen ga-nibeta batekin. Kolpa-tua izan den 38 urteko presuna Baionako ospi-talerat eremana izan zen eta erasotzailea Be-levue ospitalean galdez-katua izan da. Gertakari ilunak lakuko etxe hor-tan, aski ezaguna ez den lan baliosa egiten delarik alta.

Senpereko berriak hamabortzero

Hemendik goiti Senpe-reko berriak hamabortz egun guziz agertuko di-ra ttipi-ttapan. Berriak jakinarazteko deitu 0674783664rat ala igor-zuen mezuak dolo-sor@euskal-media.com helbide elektronikoratu.

Munduko mus txapelketa

Munduko 25. mus txapelketaren partida batzuz Ibarrungo Inharre-an ospatu ziren urriaren 10ean. Bazen hor mus-lari ainitz mundu guzi-tik etorriak Ipar eta He-go Amerikak eta Aus-traliatik bertzeak bertze.

URDAZUBI

Kuartelari egindako erasoak salatu du udalak

Herriko elkarbizitza hondatzen ahal duela uste du

ttipi-ttapa

Urriaren 12an Guardia Zibilaren kuartelari egindako atentatua salatu zuen udal batzarrak urriaren 14an egindako premiazko bilkuran. Udalak ahobatez onartu zuenez, «espero du-gu gertaera triste honen ondotik urdazubiarrok

anaitasun, askatasun, berdintasun eta adie-razpen askatasun ber-dinarekin segituko du-gula bizitza, orain arte ohituruak gauden ma-nera berean, pertsona moduan gure eskubide-ak osoki baliatuz». Ho-nela, udalbatzaren ida-tzian ageri denez, «opa-



DIARIO DE NOTICIAS

Jon Olló, alebin mailako txapelkun eta pilotaririk onena izendatu dute Gartzarongo txapelketan.

rotasun, zintzotasun eta apaltasunik handienare-kin nahi du praktikatu

Demokrazia, osagaigu-tiak dituen Demokra-zia».

AZKAIN

Hogei urteko gazte baten heriotzak emozione ainitz sortu du herrian

Toni Albistur urriaren 10ean zendu zen Senpereko bidean

Ihintza, Angela eta Eneko

Toni Albistur urriaren 10an zendu zen Senpereko bidean. Hiru haurrideko anai zaharrena zen, eta Lapitz enpresan ari zen lanean hargintzan. Errugbian aritu izan zen ere gaztetan eta musika gustatzen zitzaion. Gutti ezagutzen zuten jendeek mutil ixila zela zioten baina Azkainen eta Donibanen lagun ainitz zituena. Enterramendua urriaren 13an egin zen igandean eta eliza bete bete zen. Omenaldi ederra egin zioten gazteek olerki eta lekukotasunak irakurri eta harri zizelkatu bat eskainiz. Mendian ere harri bat pausatu dute orroitzapenez, Arrano Xola ondoan, han biltzen baitziren noiztenka bere adinekoak.

Azkain-Sara derbia irabazi dute errugbian

Urriaren 20an egin zen

errugbi matxa, 16 eta 9 irabazi zuten Azkaindarrak. Philippe Viquendik markatu zituen puntu guztiak: 3 penalitate eta entsegu bat. Hiru matxa dituzte eginik eta hiruak garaipenak dira. Horren ondorioz taldeko lehen tokia hartu dute. Orai Herm, Kanbo, Mendikota eta Salbatare herrien kontra aritu beharko dute.

Errugbi eskola Frantziako Estadioan

Frantses Federazioak errugbi eskolako haurrak gomitatzen ditu All-Black / Frantzia matxaren ikusterat Frantziako Estadioan Parisen. Gomita hori Senpere-Sara-Azkaingo errugbi eskolari zuzendua zaio, maiatzaren leheneko torneoan emaitza onak ateratu zituelako. Baina 11 toki baizik ez dira haurrentzat, Senperetik 6 joanen dira, Sa-

ARTXIBOKOA

Toni Albistur gazteari omenaldi ederra eskainizioten gazteek, olerki eta lekukotasunak irakurri eta harri zizelkatu bat eskainiz. Mendian ere, Arrano Xola ondoan, harria pausatu dute.

ratik 2 eta Azkaindik 3 bakarrik.

Marc Berasategi berezkoetan

Hilabete hastapenean Marc Berasategi herriko pilotaria berezkoen taldean onhartua izan da. Semi-profesionala izanen da oraitik aitzina eta pilotari hobereenen artean arituko da.

Saski baloian ere lehen tokia

Saski baloioako lehen



emaitzak ere biziki onak dira momentuko lehen hiru matxak irabazi baitituzte eta beren taldeko lehen tokia hartu baitute ere.

Besta komiteak bulegoa berritu nahi du

Besta komitearen biltzar nagusia azaroaren 30an egingen da eta bulegoa berritu beharko da. Jérôme Laduchek, duela zonzait urte lehendakari baita, kargua

uzteko xedea adierazi du azken bilkuran. Prest da laguntzaile gisa urte batez lanaren segitzea, lehendakari berriaren formatzeko astia.

Azkaindarrak Eskualdeko selekzioan

Lastra, Jean-Pierre Hiribarren, eta Philippe Viquendi herriko errubi jokolariak eskualdeko taldearen lehen hautaketarentzat atxikiak izan dira.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN



300 m² perfume markarik ezagunenekin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**



ZOANSA
SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)



EZKONTZAK

Luis Miguel Bikondo Goñi eta **Ainhoa Arretxea Irigoien**, Iruritakoak, urriaren 5ean.

Carlos Telletxea Bidegain eta **Maria Angeles Salgado Guinaldo**, Elizondokoak, urriaren 5ean.

Felix Urtxulategi Nicolás eta **Maria del Mar Antxordoki Irigoien**, Doneztebe eta Erratzukoa, irailaren 7an.

Javier Ballarena Arraztoa eta **Maria Eugenia Telletxea Gortari**, Elizondo eta Le-karozkoa, urriaren 19an.

Martin Bernard François Arotzarena Martory eta **Ana Maria Florez Riol**, Bauina eta Berakoa, urriaren 12an.

Guillermo Soroa Altzibar eta **Carla Alegria Alza**, Getxokoak Beran, urriaren 12an.



SORTZEAK

Itxaso Zaldain Jimenez, Arizkungoa, urriaren 1ean.

Haizea Eugi Gamio, Iruritakoa, urriaren 8an.

Joseba Urruzola Agerrebere, Zigakoa, urriaren 15ean.

Paula Perurena Labaien, Leitzakoa, urriaren 14an.

Oihana Parisies Kamino, Urdazubikoa, irailaren 4ean.

Aitor Elizalde Kamino, Urdazubikoa, irailaren 12an.

Pablo Taberna Unsiön, Berakoa, urriaren 2an.

Mikel Atxalandabaso Iribarren, Elgo-riagakoa, urriaren 15ean.



HERIOTZAK

Natividad Balzategi Murua, Elizondon, urriaren 17an, 94 urte.

Jose Manuel Aramendia Larrea, Leitzakoa, urriaren 14an, 51 urte.

Ramon Iarza Narbarte, Goizuetan, urriaren 16an, 71 urte.

Isabel Apezetxea Lizaso, Doneztebe-koa, urriaren 10ean, 29 urte.

Francisco Zubiri Etxandi, Anizkoa Lesakan, urriaren 12an, 76 urte.

Asuncion Madariaga Matxikote, Lesakakoa, urriaren 12an, 81 urte.

Maria Francisca Etxarte Abanz, Lesakakoa, urriaren 12an, 82 urte.

Guadalupe Perez Arroyo, Berakoa, urriaren 13an, 81 urte.

Maria Pilar Oizartzabal Susperregi, Lesakan, urriaren 14an, 77 urte.

Escolastica Etxegia Lasarte, Urrozkoa, urriaren 22an, 81 urte.



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdi

24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704



Maderas GOMEN

- ☛ Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- ☛ Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- ☛ Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- ☛ Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645



Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17
BERA

☎ 948 630 763

MENDI DUATLOIA

Mitxel Aginagak bosgarren aldiz irabazi du Nafarroako txapelketa

Gartzainen Pilarika egunez jokatu zen

Aitor AROTZENA

Mitxel Aginaga narbartearra nagusitu zen Pilarika egunez Gartzaingo IX. mendi duatloi txapelketan. Narbarteko kirolariak ordu-bete, 8 minutu eta 22 segundu behar izan zituen 5 km lasterka, 15 km mendi bizikletan eta azken bi terdiak berriz ere lasterka egiteko. Calatayudeko Luis Antonio Garcia Moreno izan zen bigarren 35 segundura eta Bergarako Eduardo Jimenez hirugarren 40 segundura. Hiru kirolari hauen arteko lehia ikusgarria izan zen. Lehenbiziko lasterka saioaren ondotik Aragoiko kirolaria zegoen lehendabiziko postuan, baina bizikletarekin egin beharreko lana akituta koan Aginagak hartua zuen bukaera arte mantenduko zuen lehen postua. Gisa honetara, Mitxel Aginagak bosgarren aldiz jantzi du Nafarro-



Mitxel Aginagak bosgarren aldiz jantzi du Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa. Gainera, Gartzaingo proba irabazi egin zuen.

ako mendi duatloi txapelketa, 1997, 1998, 1999 eta 2000. urteko garaipenen ondotik. Joan den urtean, lesio baten ondorioz, ez zuen parte hartzerik izan, baina aurten ez du arazorik izan txapela berres-

kuratzeko. Izan ere, joan den urtean txapel-dun izan zen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Pablo Arrastia 6 minutu eta 34 segundura sartu zen. Nafarroako txapelketan bigarren postua beretzat

izan zen, nahiz eta bosgarren izan sailkapen orokorrean. Lizasoko Patxi Ziak osatu zuen Nafarroako txapelketaren podiuma, narbarte-arrak baino 7 minutu eta 10 segundu berandua-go sartuta.



PERTSONAIA

Xabier MINDEGIA

Bigarren mailan ariko da heldu den urtean

Urriaren 12an jokatu zen Basaurin Euskal Herriko hirugarren mailako aizkolari txapelketa. Txapelaz gain, heldu den urtean bigarren mailan lehiatzeko bi txartel zeuden jokoan. Txapela Arkaitz Iriartek jantzi zuen eta bigarren mailara igotzeko esku-bidea ematen zuen bigarren postua Beintza Labaiengo Xabier Mindegia eskuratu zuen, Joan den urtean, Euskal Herriko gazte mailako txapela jantzi zuen Mindegiairen ilobak Donezteben eta helduen artean ere gauza politak egiten ahal dituela erakutsi zuen. Hasieran Ezpeleta bizkaitarra zen txapelerako faboritoa baina azkenean hirugarren postua bertzerik ez zuen erdietsi. Iriartek eta Mindegia lehia ikusgarria eskaini zuten. Gipuzkoarrak 14 minutu eta 43 segundutan akautu zuen lana eta Beintza-Labaiengoak 15 minutu eta 15 segundutan. Ezpeletak 15 minutu eta 40 segundu behar izan zituen, Esnaolak 16 minutu eta 18 segundu, Llanosek 16 minutu eta 47 segundu eta Zubia-gak 16 minutu eta 59 segundu.

HERRI KIROLA

Floren Nazabal txapeldun eta Donato Larretxea bigarren Euskal Herriko aizkolari txapelketan

Floren Nazabalek Euskal Herriko bere lehen txapela bereganatu zuen urriaren 20an Mendaron, azken urte hauetako finalik estuenean. Minutu baten barranean sartu ziren lehen hiru sailkatuak. Donato Larretxea bigarren izan zen, 48 segundu-

ra eta Peñagarikanok bigarrendu gehiago bakarrik behar izan zituen, aizkorakada bat.

Hiru faboritoek se-kulako lehia izan zuten lehen enborretatik. Hasieran Donato aitzinetik, bertzeetan Peña, segundu guttiren barranean ibili ziren lehen sei

enborretan. Lan erdian, Nazabal zen lehengoa, baina hamabi segundu bakarrik kentzen zizkion Peñagarikanori, eta hamalau Larretxeari.

Hortik aitzin Nazabal nagusitzen hasi zen. Etxarrikoa zuloa egiten hasi zen. Peñagarikano

ere Larretxeari aldea kentzen hasi zen, eta bazirudien lehen hiru postuak horrela izanen zirela. Nazabal txapelaren jabe egin zen. Bigarren posturako lehian, azken kolpeetan Larretxea aitzindu egin zitzaion Peñari. Iñaki Azurmendi izan zen laugarren, Joxe Juan Barberena bosgarren eta Mugertza seigarren.

LAXOA

Oitzek eta Arraiozek irabazi dituzte haur eta gazte mailako txapelketak

Irurita eta Doneztebe azpitxapeldun

A.A.

Baztan-Malerrekako gazte eta haur mailako laxoa txapelketen finalak urriaren 12an jokatzekoak ziren Doneztebeko Bear-Zana pilotalekuan. Pilarika eguneko eguraldi kaxkarrengatik biharamonera gibelatu behar izan ziren. Eguzki ederra lagun zutela jokatu ziren bi partidak.

Lehenik, haur mailan Oitzek 9 eta 2 irabazi zion Iruritari. Ligaxkan oiztarrek zortzi partidetatik sei irabazi zituzten eta iruritarrek lau. Dena den, ligaxkako azken partida irabazi egin zion Iruritik Oitzeri bere etxean. Beraz, finala zabalik zegoela erraten ahal zen, baina Malerrekakoek ez zioten aukerarik eman baztandarrei.

Oitzekin Eneko Telletxea, Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Jokin Telletxea aritu ziren. Iruritarekin Joxe Mari Salaburu, Jagoba Ramos, Iñaki Arraztoa eta Egoitz Prim. Lesioen ondorioz, talde bakoitzak aldaketa bat egin behar izan zuen finalerako

Eguerdi partean, gazte mailako finala hasi zen. Hemen ere Baztan eta Malerrekako pilotarien arteko lehia ikusi zen, kasu honetan Doneztebe B eta Arraioz. Arraiozek ligaxkako par-

tida guztiak irabazi eta finalerdietan aisa irabazi zizkion bi partidak Iruritari, 9-4 eta 5-9. Doneztebe Bk bertze horrenbertze egin zuen bere herriko C taldearekin, 9-4 eta 4-9. Finalean, partida ikusgarria eskaini zuten bi laukoteek. Launa, bortzina eta seina berdinduak egon ziren. Hurrengo bi jokuk baztandarrek egin zituzten. Doneztebe 8-7ra hurbildu zen, baina azken jokoa eta txapela Arraiozek eskuratu zuen. Arraiozekin Xabier Bengoetxea, Xabier Mihura, Asier Zubigarai eta Sergio Navarro aritu ziren. Donezteberekin Julen San Miguel, Santi Mindegia, Damian Iribarren eta Txomin Sapuppo aritu ziren.



ARRAIOZKO TXAPELKETAKO PARTIDA GUZTIAK IRABAZI DITU GAZTE MAILAN. FINALEAN ARAZO GEHIAGO IZAN ZITUZTEN XABIER BENGOTEXEA, XABIER MIHURA, ASIER ZUBIGARAI ETA SERGIO NAVARROK, BAINA AZKENEAN TXAPELA ESKURATU ZUTEN.

ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

HERRI KIROLA

Marka berria egin du Inaxio Perurena leitzarrak hemezortzi urterekin 255 kiloko harria alxtatuz

Urriaren 20an, Mendaron, aizkolari finalaren aitzinetik Inaxio Perurena leitzarrak 255 kiloko harri errektangularra jaso zuen 18 urterekin, eta marka berria ezarri zuen Iñakiren semeak. Lehen saioan ez zuen lortu, gerrira ekarri bezain laster bota egin behar izan baitzuen harria. Baina segundu batzuetako atsedena hartu eta harria bizkar gainean berdindu zuen, minutu eta 52 segundutan.

HARRI TXIKIEN EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Egun berean, harri txikien Euskal Herriko txapelketa jokatu zen Altsasun. Joseba Ostolatza nagusitu zen, Aiako Izeta anaia aitzinetik. Urpe izan zen laugarren eta Euskal Herriko txapelketan lehen aldiz parte hartu zuen Patxi Larretxea arraioztar bosgarren eta Mikel Lasarte arraioztarra seigarren.



AGENDA egunez egun

KANTALDIAK

BERA
Azaroaren 3an Filipinako Palawan abesbatzak kantaldia eskainiko du Kultur Etxean, 19:00etan.

SOLASALDIAK

BERA
Azaroaren 8an Aingeru Epaltza idazleak Rock&Roll bere azken liburuari buruzko solasaldia eskainiko du udal iburutegian, 19:30etan, Udazkeneko Irakurraldia Zikloaren barnean.

ELIZONDO

Baserriko Emakumearen Astearen barnean hainbat solasaldi antolatu ditu UAGN sindikatuak Arizkunenean, 15:00etatik aitzin:
Azaroaren 4an «Gizarte trebetasunak eta autoestima».
Azaroaren 5ean «Ahozko komunikazio teknikak».
Azaroaren 6 eta 7an «Hurbil zaitetz Informatika eta Internet-en mundura».
Azaroaren 8an solasaldimahaingurua «Emakumea eta baserri ingurua, nekazaritza sektorea».

BERTSOAK

BERA
Azaroaren 9an Lizaso eta Mendiluze bertsolariekin bertso-afaria izanen da Agerra elkartearen, 21:30etan. izen ematea azaroaren 6a baino lehen (948 631130).

DEIALDIAK

LEITZA
Azaroaren 2an herriko gazteek ekimen berezia prestatu dute. 19:00etan Elektrotuna; potoe eta kalejira punk. 21:30etan malabarak karrapean. 22:00etan aparti autogestionatua Aurreran, bertsolariekin. 12:00etan hip-hop Kataluinako Pirata Sound Sistem taldearekin.



BASERRITARREN EGUNA TARTEAN


Arantzako Kultur Egunei buruzkoak telebistan

Urriaren 31n hasi eta azaroaren 3a bitarte hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arantzako, Udazkeneko Kulturaldiaren barnean. Azkeneko urteetan hartu duen indarrari erreparatu gero, Santu Guzien eguneko Baserritarren Eguna izanen da ekitaldi nagusia. Zazpigarren edizioa beteko du aurten, eta urtetik urtera Arantzako baserrietako produktu gehiago azaltzen dira pilotaplazako azokara. Alkarkide txarangak ere giroa alaituko du eta bazkaria izanen da Zahar Txokon, Mendizabal eta Zeberio bertsolariekin. Elizondoko Feria eta Berako Lurraren Egunaren ondo-

tik, ttipi-ttapa telebistako kamarak Arantzara ere hurbilduko dira, noski. Onddo, barazki eta gaztainen usaia ez duzu etxean somatuko, baina bertako irudiak ikusi eta bertaratutakoen iritziak aditzeko modua izanen duzu etxe xokoan. Dena den, bertze ekitaldi aunitz izanen dira kultur egunotan eta gehien berri bilduko da telebistan.

DONEZTEBEKO FERIAK
Bortzirietatik Malerreka salto egin ez, ttipi-ttapa telebistak Doneztebe ferien berri ere bilduko du, azken bortz urteetan egin duen bezalaxe.

DISKAK



«Elearen lainoa»
Olatz Zugasti
ELKAR, 2002

Kantu onak, izaki aunitz batera harrapatzen dituen sentimenduzko amaraunaren modukoak ohi dira, unibertsalak eta iraukorak. Bihotzez atsegin zaizkigun abes- tiek, maitasunarekin zuzenean loturik dagoen gure izaeraren zati bat gogorarazten digute; maitasuna baita sentimendurik unibertsalena, harengatik jai eta haren gibeletik bizi gara gizakiok. Maitasuna da, dudarik gabe, musikak gehien maite duen gaia. Olatz Zugastik jatorrizko kantu zein doinuak konposatzerakoan mundu fantastiko dizdiratsuak ekartzen dizkigu eskura: bareak, zintzoak, beroak. Oraingoan, «Elearen lainoa» bere azken dis- kak gure arreta pitzen du berriro ere. Abesti edere- z osatutako sorta koloretsua da, non okreak, berdeak, urdinak eta horiak, zeru erakargarria margotzen duten.

BASERRIA DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urriaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 15,00 €
Zerri gizona
0,86 € kiloan.
Zerramak:
0,40 € kiloan, bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,22
1.koa 3,10
2.koa 2,98
Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,28
1.koa 3,16
2.koa 3,05

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 252,43 € eta idixkoak 228,38 €

Nabarrak: urruxak 200,36 € eta idixkoak 176,32 €.
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,79/2,95
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,61/7,91
8-10 kilokoak: 6,66/7,10

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Artrosiarendako tresnak telefonoz ez erosteko aholkua eman du Iratxek

Insalud erakunderako inkesta bat egiten ari direla izaten da aitzakia. Gero, etxera joan eta artrosiarendako tresnak saltzen dituzte. Iruñerrian hainbat salaketa jaso ditu Iratxe Kontsumitzaile Elkarteak eta honen berri zabaldu nahi du.

Artrosiarendako tresna hauek saltzen dituen enpresa honek Donostian du helbidea. Insalud edo Osasun Zentroren baterako inkesta egiten ari direla aitzakitza hartu eta etxean artrosia edo gisako eritasunen bat duen pertsonaren bat bizi ote den galdetzen dute. Erantzuna ezezkoa bada, komunikazioa bertan mozten da. Baiezkoa baldin bada, ordea, balizko bezeroarekin hitzordua finkatzen da, mediku espezialista bat aholkua ematera joanen dela jakinaraziz. Gisa honetako eritasunak etxean ere tratatzen ahal direla erraten diote, bainuetxe edo zentru espezializatuera joan gabe. Hitzordua finkatu ondotik, bi lagun joaten dira etxera eta saltzeko teknika eta pro-



ba baten bidez, 480,81 euro balio duen tresna saltzen saiatzen dira. Finantza erakunde batekin kontratua sinarazten zaio bezeroari eta 30 euroko seinalea jarri behar izaten du,

kontu zenbakia eta Nortasun Agiriaren fotokopia emateaz gain. Iratxe Elkarteak dei hauei kasurik ez egitea eta tresna erosi baino lehen medikuari galdetzea gomendatzen du.

BESTAK

AURTIZ

Azaroaren 8tik 11ra San Martin bestak. Xehetasunak 16. orrian.

ANTZERKIA

BEINTZA-LABAIEN

Azaroaren 10ean Kollins Clown taldearen «Arratoi txo maripertxenta» eta «Katu botaduna» antzezlanak 17:30etan elizako arkupean. Udazkeneko Biraren barnean.

DANTZAK

ARANTZA

Azaroaren 3an Agoitzko dantza taldea frontoian 17:00etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Azaroaren 17a arte Javier Iriarte margolariaren erakusketa zabalik Arizkunenea Kultur Etxean, 18:30etatik 20:30etara, Artinex XXI Programazioaren barne.

KULTUR EGUNAK

ARANTZA

Urriaren 31tik azaroaren 3ra.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Urr. 28tik azaroaren 3ra

Bera (Sanz), Narbarte, Elizondo (Iturralde), Iruñita, Leitza (Erbiti), Goizueta

Azaroaren 4tik 10era

Bera (Apeztegia), Doneztebe (Mendia), Elizondo (F. Garcia Mata), Oronoz-Mugairi, Goizueta.

Azaroaren 11tik 17ra

Lesaka (L. Marin), Sunbilla, Elizondo (F. Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (A. Gimeno), Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA	Non: Kultur Etxean. Noiz: Azaroaren 3an, larunbata. Ordutegia: Arratsaldeko 7etan.
	Palawan Abesbatza Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketatik dator Berara Filipinetako haur eta helduen taldeak, Berako Abesbatzak antolatua
Non: Liburutegian. Noiz: Azaroaren 8a, ortzirala Ordutegia: 19:30etan.	Aingeru Epaltza Udazkeneko irakurraldia zikloaren barnean, gaur egun Nafarroak duen idazlerik ospetsuenetakoak «Rock&Roll» bere liburua izanen du salasari

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA Pisua salgai, Ibaialde, 6 3.ezk. ☎ 948 630 870 gaueko 9etatik aintzin

BERA Pisua salgai, Iduplexa. 5 gela eta terraza. ☎ 646 266730 Laura

LESAKA. Pisua salgai. 90 m²koa. ☎ 948 637 267.

BERA. Pisua salgai mobleztatua, garaje, kalefakzio, trastero eta lorategiarekin. ☎ 948 631 074 (gauetz)

IRUN. Salvador Etxandia kalean pisua salgai, mobleztatua, kalefakzioa, sukalde berria, 2 gela, egongela-jangela eta komuna. ☎ 948 637 499.

DONOSTIA. Altxa auzoan pisua salgai. Hiru logela, bainua, sukalde-egongela eta balkoi ederrarekin. Bista ederak. 155.000 € (negoziagarriak). ☎ 948 186448.

LEITZA. Amazabal kalean 88 m²ko pisua salgai. Lau garren pisua aszensorearekin. ☎ 677 812208 (arratsaldetako 7etatik aurrera).

LESAKA. Pisua salgai. ☎ 948 210990.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan emateko

IRUÑEA. Apartamendu bat errentan emanen nuke. ☎. 606 172 156

BERA. Pisu bat errentan emanen nuke. ☎ 650 725 414

SUNBILLA. Baseri osoa errentan emanen nuke. Baratze eta lorategiarekin. ☎. 948 393 070 / 608 672 106

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartzeko

Etxalar edo Lesaka. pisua errentan hartuko nuke. Prezio onean. ☎ 677 705 985

LESAKA. Pisua errentan har-

tu edo erosiko nuke. Pertsona bakarrarentzako. ☎ 661 845 048.

☎ 607 978 656

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 625000 (goizez, Gerardo), 637242406 (arratsaldez).

GARAJE/LOKALAK

109 Errentan emateko

BERA. Lokal komertziala alokatzen da kanttonberri karriran. 66m², komuna eta almazena. Obra egin berria. ☎. 655 706 363 / 655 706 364

LANA

301 Eskaria

Emakume batek haurrak edo helduak zaintzen, edo jabetxeren batean lan eginen luke. ☎ 948 630 465.

33 urteko emakume batek lan eginen luke. zaharrekin esperientzia. ☎ 948 637562.

Lan eginen nuke etxeko lanetan edo haurrak zaintzen. ☎ 948 387 056.

LANA

302 Eskaintzak

Etxalarko herriko ostatuan zerbitzari bat behar da asteburuetako. ☎ 948 635450

IRUÑEA. Neska euskalduna behar da arratsaldeko 8etatik 9,30ak arte, 3 seme-alaba dituen emakume bati laguntzeko. ☎ 948 161 680

Senar emazte ume batekin neska interna behar du. ☎. 630 259 181

ADOS

- Eskiera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
- Edozein herritan badugu zerbit. Eskatu informazioa

948 451 841 / 639 494 522

ADOS

Doneztebe Santa Luzia Plaza. 8 apartamentu eta 200m² lokal komertziala eraikiko dira. Erreserbak egiteko.

948 451 841

DONOSTIA. Pertsona bat behar da interna haurrak zaintdu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 605 708 721

HENDAIA. Etxekolanakegin eta haurrak zaintzeko pertsona bat behar da. ☎ 669 247076.

MOTORRA

501 Salerosketak

Golf 16v. 5 atekoa, urdiña. NA-AJ 135.000Km. Egoera oso onean. ☎ 670 365011

Yamaha YZ 125cc/97 motoa salgai. Egoera onean. ☎ 699 461394.

YAMAHA XT 3,5 salgai. Matrikulatua eta ITV pasatua. ☎ 948 450711.

Gas Gas motoa salgai, 1996koa. 370 cc. Egoera onean. ☎ 948 635218 edo 626 927784.

Seat Ibiza SDI salgai, 45000Km. ☎ 659 075 659

Sei eserleku dituen furgoneta Peugeot J5 salgai. Mobleztatua eta isolatua. ☎ 617 350 176

Rallyko Peugeot 106 1600 GR N berri berria eta Audi A4 TDI avant 110 CV gorria llanta 17' salgai. ☎ 670 347 478.

Volkswagen Golf GTI III auttoa salgai. NA-AG. 110.000 kilometro. Llantak. Merke. ☎ 948 637460.

Todoterrenorako erremolke salgai, 2x1,5 metrokoa. Egoera onean, berri-berria. ☎ 639 439509-948 451622.

ANIMALIAK

602 Saldu/Erosi

15 ardi muturgorri salgai Azaroaren erdi aldera umeak egiteko. ☎ 948 510587 / 646 003662

Setter ingeles arrazako zaturkumeak salgai. ☎ 948453 048

ARANTZA 20 ardi eta bi



Lesakako eskolamendin, zakur hau galdu genuen. Collie Border arrazakoa, 5 hilabetekoa arra. Irailaren 26an galdu zen. ☎ 948 631 390 / 648631 457



MEDIKU HOMEOPATA
Dra. Elena Palomo Lertxundi
6752. Kol. zbkia

Asteleheneretik ostiralera
8:00etatik 20:00etara
Larunbat goizetan
10:00etatik 14:00etara

Gipuzkoas hiribidea, 9
Villa Ongi atorri
IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 638 116
Tel. Usg. 852 705 811

MENDAUR MOTOR

© 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Corsa D, Astra D familiarra, Mitsubishi Montero 3 ate, Isuzu Proper 3 ate, Saxo D, Laguna TD, C15 D
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



598.

ROSA BELZUNEGI**PSIKOANALISTA**

Kontsultarako eskatu orduta

☎ 948 272011 (IRUÑA)

☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ahari salgai 2 eta 3 urte tar-
tekoak bere deretxuekin. ☎
948 634 170

LEITZA. Esne abonoaren
arrazoiagatik Frisoi arraza-
ko behi gazteak eta ume egi-
tekoak salgai. ☎ 948 510 463.

12 ardi salgai. ☎ 689 042

**DENETARIK
701 Galdu-aurkituak**

Spaniel arrazako zakur bel-
txa eta xuria, sei hilabete-
koa, galdu da Kaule auzo-
an. ☎ 948 631058.

**DENETARIK
702 Salerosketak**

2. eskuko saxofoi bat ero-
siko nuke. ☎ 948 581 297.

DENETARIK

**Bidali
ttipi-ttapa
heritik kanpo bizi diren
lagun edo familiakoei**

☎ (+34) 948 631188

**BORTZIRIETAKO
HIRI HONDAKINEN
MANKOMUNITATEA**

Sukaldean erabilitako olioien
bilketa egunak

2002ko azaroaren 7an

Lesaka9etatik 12etara

Igantzi13:00etan

Arantza14:00ak arte

☎ 948 635 254 - Etxalar

703 Bertzelakoak

Egur zaharra saltzen da.
☎ 606 172 156.

Traktoreari lotzeko kablea
edo trola salgai, egurra ate-
ratzeko egokia. ☎ 629 417
078

Klase partikularrak ema-

nen nituzke (fisika, kimika,
matematika...). Maila guz-
tiak, selektibitate arte. ☎ 948
627637 (Aitor).

80m²ko lokala hornitze-
ko baldak salgai. Goxo-
kientzako metakrilatozko-
teak ere saltzen ditugu. Mo-

blea eta ppisera opari. ☎ 655
706 363 / 655706 364.

**LESAKA. 400 litro sagar-
do saltzeko, botillatua edo
orain egin berria. ☎ 948
637912.**

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA****ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

**IKUSMENAREN
BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**GIHARRE
ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Orduta eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN



Tel.: 948 456 080

Faxa: 948 450 334

DONEZTEBE**APARAN, S. A.**

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



JUANITA IRAOLA beratarak urteak bete ditu urriaren 31n. Zorionak Izaroren partetik.



HARITZ ETA UNAI BERAU MUTUBERRIAK irailaren 21ean eta urriaren 23an 2 eta 5 urte bete dituzte. Zorionak aita, ama eta familia guztiaren partetik. Muxu haundi bana.



IKER ALEMAN AZKARRAGA iruritarak 2 urte bete ditu urriaren 21ean. Zorionak eta musu handi bat attatto-amatto eta familiaren partetik.



EZTITXU ETA XABIER ITURRIA azkaindarrek 5 eta 3 urte beteko dituzte urriaren 28an eta azaroaren 10ean. Aunitz urtez eta muxuak Bera eta Azkaingo familiaren partetik.



MARIAN ALMADOZEK urriaren 18an urteak bete ditu. Zorionak eta urte askotarako. Patxi, Unai eta Maiderren partetik.



JULEN ERRANDONEA MARTINEK urriaren 31n 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



JUNE AZPIROZ IOUZKIAGIRRE igantziarrak eta **BIXEN TELLETXEA IOUZKIAGIRRE** lesakarrak urriaren 30 eta azaroaren 1ean urte bat eta bortz urte bete dituzte. Aunitz urtez Lesakako eta Igantziko familiaren partetik.



NURIA LARDELLI UBIRIAK azaroaren 10ean urte bat beteko du. Zorionak familiaren partetik.



ANE LARRAINZAR UBIRIAK azaroaren 22an 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



OIER ZUBIETA andoaindarrak urtea beteko du urriaren 28an. Zorionak eta muxu handi bat Gozuetako familiaren partetik.



OIHANA LEIZA ALZUART beratarak 4 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak eta muxu handi bat aita eta amaren partetik.



ARITZA FERNANDEZ CREVILLEN zigaurrearrak azaroaren 18an 2 urte beteko ditu. Zorionak ama eta aitaren partetik, potxolo eta polite

NORBAIT ZORIONTZEKO,

BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,25 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA (Nafarroa)



Gustuko zerbait
aurkitzen
dugunean
zurekin
kompartitu nahi
dugu



☎ 948 630 800 • Legia 42 • BERA

EHIZA

X. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

AZAROAREN Ietik ABENDUAREN Iera



Juan Carlos Olaetxea

Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 15 jatetxek eskainirik uso, basurde, orein, erbi edo oilagorrez osatutako menuak dastatuko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak

15 - 26 € arteko menuak
(ardoa eta BEZ kanpo)

Dena den, jatetxe guztiek beren ohiko karta eta zerbitzuak ere eskainiko dituzte.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Noticias



JATETXEAK

ALMANDOZ

Beola. © 948 58 50 02

ARANTZA

Aterpe. © 948 63 41 79

Burlada. © 948 63 40 27

BERA

Zalain. © 948 63 09 67

DONAMARIA

Donamariko Benta. © 948 45 07 08

DONEZTEBE

Amezti. © 948 45 19 02

ELGORRIAGA

Hilarion. © 948 45 00 03

ELBETE

Oñaska. © 948 45 20 88

ELIZONDO

Eskisaroi. © 948 58 00 13

IGANTZI

Igantzi. © 948 63 75 02

La Villa. © 948 63 72 90

IRURITA

Olari. © 948 45 22 54

Taberna del Fotógrafo. © 948 45 20 87

LESAKA

Kasino. © 948 63 71 52

Koxkonta. © 948 62 75 19



Sukaldaritza elaboratua eta imajinatiboa
Asteburuko menu berexia

OIZKO OSTATUA



☎ 948 451 951

☎ 948 450 168

OITZ (Nafarroa)



5 logela bikoitz bainuarekin



50 lagunendako jangela

MUEBLES METS



Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak



**Sarrera
BERAtik da**

Sastrin karrika,

3.2 - 3.4 Alkaiaga

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE

WEB ORRIA

www.mueblesamets.com



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN EREKIA**

4000 m² erakusketa

ME K

**ERAKUSKETA
ALDAKETA**

**BEHERAPEN
HANDIAK**

METS

NEGUA PASATZEKO

ERAKUSKETAN

DAGOENA

BUKATU ARTE

ikusi eta

eraman!!!

2x1

**koltxoi eta
somieretan**

**%25_{eko}
deskontua**

OPARIA

KOLT XOIA



**Latexeko
malgukiekin**

+



**LUMA
nordikoa**